


# ANAITASUNA

297. zenb.

1975.eko maiatzaren 15ekoa

Pelota, 4 - 1.º - Bilbao-5  
Tel. 23 74 49 - Apart. 495

## Maiatzaren lehena



Maiatzaren lehenak ba du urtemuga antzik langileriarrentzat. Galera eta irabazien balantzea egiteko aukera egokia ematen dio datu honek. Ia bateratsu, bi gertakari gailen etorri zaizkigu, itxaropenaren zuziari indar berria ematera: Portugaleko sozialisten garaitzapena eta Vietnameko gudate luzearen bukaera.

Hainbeste urtez mututurik egon den Portugaleko herriak hitz egin du, eta, zurrumurru, hondamendi beldur eta mehatxu ezkutu guztiak gorabehera, sozialismoaren alde egin du oihu. Kissinger kezkatari jarri duen urrats hau, itxaropen iturri bihurtu da gehienontzat.

Eta, ia hainbeste urtez, egunero odoletan blai eginik

jaikitzen zen herri erdibituak, azkenean bakearen ostadarrak ikusi ahal izan du.

Herrien eta langileriaren gau ilunean, beste bi izar berri piztu dira. Bi herri hauen gaua luzea izan da, gogorra, neketsua, odoltsua; baina, azkenean, askapenaren artizarrak argi egin du.

Gaua bukatu bada ere, egunak dakarren lana dago aurrez aurre. Herrigintza, gizartegintza izugarri batetarako sirena hotsak jo du Mendebal eta Ekialdeko bi egunsenti hauetan. Beste egunsenti asko dago ernamintan, lehertzer. Palestindarrena ote hurrengoa?



Gasteiz, 1975, apirilak 22

ANAITASUNAREN Zuzendaria.  
Bilbo.

Agur t'erdi!

Euskara euskaratzeko beharrak eraginik bidaltzen dizuet gutun\* hau. Baldin ahal eta nahi baduk, argitara zak. Bestela, irakur eta pentsa zazue behintzat, nik diodana egia denentz.

D mailako irakasle tituluaren bila Lekeitiora joan nintzeanean, «Aditz Laguntzaile Batua» iburua erosi nian. Hura ene lehen harrialdia! Euskaltzaindiak berak aditzik urriena, gipuzkerazkoa, onhartu zuela ikusi bainuen.

Euskal aditzaren mamirik mamitsuena den hiketazko jokoerari lotuko niatzaio. Euskaltzaindiak erabaki zuen jokabideak ez ditik Nor-Nork eta Nor-Nori-Nork ondo bereizten. Adibidez, nik hiri hura esan diat / nik hura esan diat. Nahiz eta beste euskalkietan joko egokiak izan. Adibidez, nik hiri hura esan dauat (deuat, derauat) / nik hura esan diat.

Galtzer\* dagoen zuketari buruz ere horixe berori esanen nitek.

Hala ere, nafar-lapurterazko aditzaren alde banago ere, Euskaltzaindiak aldatu arte, haren «Aditz Laguntzaile Batuz» idatziko diat. Eta hau ez duk zurikeria, batasuna baizik.

Joan gaitezen orain harira. Har zak 294. zenbakiaren 9. 10. horrialdeetako X. Kintanaren «Komiki honetaz zerbait» idazlanaren elkar hizketa. Artikulu honetan, hiketazko jokabidea (eta honela aditz osoa) ukatzen dela uste diat. Harriturik geratu nauk, batez ere elkar hizketaren egilea edo biltzailea X. Kintana, euskaltzaina eta B mailako titulurako etsaminatu berri gaituena dela ikusirik. Nola idatz liteke, hor idazten den bezalako gauzarik? Hika ari direla ikusteko, ez diagok batere zalantzarik. Hika ari direnez gero, euskal gramatikaren, euskal literaturaren eta herriaren hizkeraren araberak,\* ezin onhar litezkek idazlan horretan oker dauden 37 adizkerak.\*

Argi erakusteko, zatitxo bat hartuko diat:

«Zer nahi duk, (komiki honen balioaz) nik esan diezadadan? Alde batetik hizkuntzaren eta gaiaren arazoa dago. Honako, Euskal Herrirako pentsatu eta bertoko pertsonaiekin osatua da. Hori, hasteko, gauza berri bat da. Bestetik, neronen irudiez nik zer esan dezaket? Neure zeregina ahalik eta ongien betetzen ahalegintzen naiz; baina kalitateaz, nik barik\* publikoak esan beharko du zerbait».

Kontuz ibil hizkuntzaz! Holakoa baino erdalkeria haundiagorik ez diagok! Hika ari bagara, hika segi! Baina euskal hiketa erabiliz, bestelakorik asmatu gabe. Euskara batua erabiltzeko hiketaz Euskaltzaindiak ezer esan ez badu ere.

«Zer nahi duk, nik esan diezadadan? Alde batetik hizkuntzaren eta gaiaren arazoa diagok. Honako, Euskal Herrirako pentsatu eta bertoko pertsonaiez osatua duk. Hori, hasteko, gauza berria duk. Bestetik, neronen irudiez nik zer esan dezaket? Neure zeregina ahalik eta ongien betetzen ahalegintzen nauk; baina kalitateaz, nik barik publikoak esan beharko dik zerbait».

Holaxe esan behar zitekean. Eta hika hitz egiten ez badakite, jokaera arruntaz\* egin dezatela!

Erdalkeria franko erabiltzen diagu euskaldunok: hitzetan, joskeran,\* aditzean, etab. Baina hiketaren barruan ere sartuko dea\* erdalkeria?!

Gonzalo FONTANEDA

dezaket, daiket

dezatela, daiela

diagok, dago

diagu, dugu

diat, dut

diezaadan, deiadan

dik, du

ditik, ditu

dizuet, deusuet

duk, da

litezkek, litezke (leitekez)

nauk, naiz

nian, nuen (neban)

niatzaio, natzaio (natxako)

nitek, nuke

zak (ezak), eik

zazue (ezazue), eizue

zitekean, zitekeen



Aurrera, irakurle eta ikasle!

Hemen gaituzue berriz ere EUSKALDUNTZEN metodoarekin, guztioi aukera emanaz, geure hizkuntza nola ikas, zabal eta irakats jakin dezazuen.

Liburu hauetan arras ongi azaltzen dira hitzak eta esaldiak. Ikasleak, gehienik, gauza ezagunak aurkituko ditu, baina poliki poliki joko du zailago diren gauzetara. Honetaz gainera, hiru liburuotan, irudiak, eskemak eta esaera zaharrak agertzen dira.

Hiztegiaren klasifikatze bat ere egin dugu. Hitz batzuk besteak baino garrantzitsuagoak direlarik, kontutan hartu dugu haien **noiztasun** eta **maiztasuna**.

Ba dituzte liburuok elkar hizketa eta istorioak ere. Hizkuntzak eguneroko tresna bat izan behar duenez gero, haren zerbitzua agerian jartzeko jarri ditugu istorio eta elkar hizketok.

Geure hizkuntza ikasteko, hemen duzue prest, hiru mailatan, EUSKALDUNTZEN metodoa. Eskazazue helbide honetara: **Ribera, 6. Bilbao-5**

**ANAITASUNA**  
BIZKAIA

**HAMABOSTEROKOA**

ZUZENDARIA:

Joan Mari Torrealdai

Urteko abonamendua:

Bertorako ... ..	300	pezeta
Latin Amerikarako ... ..	320	»
Europa eta Ipar Amerikarako ... ..	450	»

Ale bakoitza: 15 pezeta.

HELBIDEA:

Pelota, 4-1.º Bilbao-5.  
Posta kaxa 495. Tel. 237449.

INPRIMATZAILEA:

Imprenta AMADO - Mazarredo, 35 - Bilbao-10  
D. L.: BI. 1753-67.



# "IBERIA EXPRESS"

## Demokraziaren krabelina harmatuak

Apirilaren 25a 1974.ean, apirilaren 25a 1975.ean. Urtebete eta bi egun jakin. Portugalen iraultza jaio zen ihaz, eta aurten ere aurrera doa hasitako iraultza. Europa eta Amerika osoan zain zain egon gara apirilaren 25ean, zain zain Portugali begira. Menderdi oso bat isilik egon den herriak zer esango zuen? Apirilaren 25ean hauteskundeak\* Portugalen.

### Alderdiak

Labur eta argi eman zen, orain hilabete, ANAITASUNAN, Portugaleko politik taldeen zerrenda. Esan dezagun orain, laburrago oraindik, orduan agertua. Hauteskunde egunean, lau alderdi ziren Gobernuaren barnean zeudenak: PCP (Portugaleko Alderdi Komunista), PPD (Herriaren Alderdi Demokratikoa), PSP (Portugaleko Alderdi Sozialista) eta MDP (Portugaleko Mugimendu Demokratikoa). Lau hauetaz kanpo, beste zortzi ziren hauteskundeetara zihoazenak. Batzu\* eskuinetik zetozen (PPM monarkikoa, CDS demokratikoa), gehienak ezkerretik (MES, FSP, LCI, FEC).

Ikus dezagun, Gobernuan zeuden alderdien politik programaren mamia. Azter dezagun lehenik **Alderdi Sozialista**. Programaren oinharrietan dago askatasun demokratikoen gorde beharra. Onhartzen da, bai, Indar Harmatuen Mugimendua, baina iragaitzazko\* instituzio bat bezala. Azkenean, aginte harmatuak zibilaren morroin izan behar du. Askatasun eta diziplina baten barnean eratu nahi du PSPk gizarte sozialista (kapitalist inperialismoaren desegiteak beste inperialismo modurik sortu



Mario Soares (PSP)

gabe). Alderdien aniztasunean,\* pluralismoan, indartu behar da langileriaren indar demokratikoa. Hontarako, ekonomi demokrazia sortu behar da, langileari produzio medioen aginpidea emanaz eta aginpide hau demokraziaren arabera\* erabiliz. Lur erreforma ere bultzatu egin behar du iraultzak. Herbestearekiko politikaren aldetik neutraltasunean jokatu du Portugalek.

PPD delakoak, hau da, **Herriaren Alderdi Demokratikoak** ere, dioenez, sozialismoa nahi du, sozialismo demokratikoa. Lehendabizi, legezko askatasunak aipatzen ditu: politikan, ekonomian, kulturean. Mendebaldeko\* libertate klasikoak osorik gorde gura ditu; baina ekonomian desjabetakuntza edo «kontrola» eskatzen du monopolioentzat eta oinharritzko ekonomi sailentzat. Gainerakoan, onhartzen du jabetasun pribatua. Produzioaren munduan kogestioa edo artakidegoa\* nahi du, langileriak, ez lanean bakarrik,

plangintzan, erabakietan, irabazpidean eta kapitalean ere parte har dezan.

PCP edo **Portugaleko Alderdi Komunistak** sozialismo komunista nahi du; eta, hartara eramango duen iraultza bidean, hauteskundeak mugarri seinatuak dira. PCPk, ordenamendu demokratikoa errespetatu erazi egingo duela prometatzen\* du, demokrazi legetasunaren barnean aurkitzen batitu proletalgoak aldaketabide jatorrak. Entrepresa haundien nazionalizazioa eskatzen du, erdikoak eta ttipiak utziz. Gaurko lur banaketa latifundistari gogor ekiten zaio PCP. Lanaren bidez irabazitako ondasunen jabetasun pribatua errespetatu egingo da; baina ez da onhartzen ondasun horik\* esplotazio tresna bezala erabiltzea. Jabetasunaren, irabazien eta herentzien gain zerga\* progresibo gogorak ezarriko dira. Eskulanean ari direnentzat eskola berri bat sortuko da, soldatarik galdu gabe eta irakaskuntza apropos baten bidez, langileak eskola daitezten.

Gobernuan zegoen laugarren alderdiak —garbi dago— hauteskundeak osorik galdu ditu: MDPk edo **Portugaleko Mugimendu Demokratikoak** bost diputatu atera ditu bakarrik. Alderdi Komunistaren luzagarria\* eta esku ezkutua\* omen den honek, ba dirudi, oraingoz, etorkizun hurbilerako, indarrak nahiko galdu duela. Baina Gobernutik kanpora zegoen beste alderdi baten programa gogoratu beharko genuke hemen, izan ere hauteskundeetan laugarren alderdi bezala agertu baita: CDS edo **Zentru Sozial Demokratikoa**. CDSk hamasei diputatu irabazi ditu; eta, nolabait bada ere, Portugaleko eskuinaren alderdia izan da, ez noski eskuin hark nahi izango zukeena (Kristau Demokrazia lehiaketa hortan legez kanpora utzia baitzen, eta faxista nagusi zaharrak alde aurretik isildurik baitzeuden), baina bai une hortako posible bakarra. CDSk onhartzen du kapitalist sistema, eta harmarik bortitzena\* bere antikomunismoa izan du. Bestelako eskuinaren eskasiak eta antikomunismo horrek eman dizkiote hamasei diputatu horik.

### Hauteskundeak

Hainbat urtetan hauteskunde eta bozketarik\* gabe bizi izan den Portugaleko herriak eman du bere botua\* apirilaren 25ean. Ikusmin egon gara denok, irakurmin, hauteskundearen biharamunean. Zer esango ote zuen herriak? Soares ala Cunhal? Sozialistak ala komunistak? Guztiok genituen ahantzixekak PPDko gizonak: Magalhães Mota, Sa Carneiro, Pinto Balsemão... Bozketaren ondoren ikusi da, PPD hori oso haintzakotzat hartzekoa dela; Indar Harmatuen baimenarekin joko demokratiko klasikorik sor baledi, berau izanen bailitzateke, Soaresen alderdiarekin batean, elkarkidego baten ardatza. Baina, ondorioen aurretik, gozen bozketak eman dituen zifrak ikustera:

Alderdiak	Botuak	%	Diputatuak
Portugaleko Alderdi Sozialista (PSP).	2.145.392	37,87	115
Herriaren Alderdi Demokratikoa (PPD)	1.494.575	26,38	80
Portugaleko Alderdi Komunista (PCP).	709.639	12,53	30
Zentru Sozial Demokratikoa (CDS) ...	433.153	7,65	16
Portugaleko Mugimendu Demokratikoa (MDP) ...	233.362	4,12	5

Esan dezagun lehenik, Alderdi Sozialistaren garaiztapena oso argia izan dela, ia inork espero ez zuen bezain-



batekoa. Soaresek esana zuen, baina ez genion gehiegi sinesten: «Portugaleko geografian hobekien landaturik dagoen partidua, Alderdi Sozialista da». Bigarren geratu denari, alde handia atera dio: diputatutan 35 aulkiren alde. Askok ematen zuten Alderdi Komunista bigarren partidu haunditzat (eta susmorik ere ba zuen zenbaitek, lehena ere izango ote zen); baina PPDren atzetik geratu da, eta, botutan, haren erdia ere ez du bildu (30 diputatu: bigarrenak baino 50 gutiago, eta sozialistek baino 85 gutiago).



Pinto Balsemão (PPD)

Ba dago beste datu jakingarririk ere. Gobernuan zegoen MDP, oso atzera geratu da. Atera dituen bost diputatuak deus\* guti dira, Gobernutik kanpo zegoen CDS berak ere aurea hartzen diolarik (16 diputatu). Gainerako alderdiek indar eskasa agertu dute. Bozketan parte hartu duten hamabi alderdietatik azkeneko zazpiek jasotako botuak 4,34 % baizik ez dira, guztitara. Ba dirudi, beraz, Portugalek egin duela, urte batzutarako, bere alderdi haundien aukera. Lehen hiru alderdien artean (PSP, PPD eta PCPre artean, hategia\*), botuetatik 76,78 % eraman dituzte oraingoan. Diputatuen hainbestekoaren arabera,\* Ganbarak ukanen dituen 247tatik, PSP eta PPDk, elkarturik, aise\* dadukate gehiengoak: 195 aulki, hain zuzen. PPDko Pinto Balsemão 50 % diputatu espero zituen bi alderdiontzat, hau da, 123 aulki. Hauteskuendek ondu egin dute uste hura.\*

### Zer pentsa, nola ikus hauteskuendak?

Askoren ustetan, Soares izan da irabazle. Alderdien barnean irabazi egin du (Manuel Serraren sozialista talde bereizleak, FSPk, ez baitu diputaturik lortu) eta berdin gainerako alderdi guztiekiko lehiaketan. «Hauteskuendek —esan du Soaresek— Alderdi Sozialistaren eta Indar Harmatuen Mugimenduaren garaitzapean haundi bat izan dira». Eta gehiago esan du oraindik: «Alderdi Komunista izan da bentsutua,\* bozketan haundiago bat bereganatuko zuela uste baitzen».

Alderdi Komunista eta beronen gidariek, oster, ez dute horrelakorik uste. Hauen eritziz, hauteskuendak hauek inportantzia erlatiboa dute eta ezin lezakete Portugalen gaurko aginte estruktura alda. Beraz, Gobernuaren molaketak lehen bezala segituko du.

Bestalde, Indar Harmatuen Mugimenduko «pentsalariak» —nahiz eta berak izan azken uneraino hauteskuendean eragilerik sutsuenak— ez bide\* dute begi onez ikusi haien ondorioa (galtzaile irten ote diren somatuz ote?). «Libertatean eman da botua, baina hauteskuendak ez dira libreak izan», esan du Mugimenduko Correia jaunak. Eta polizia berriaren buru eta Lisboako Gobernari Militar denak, Saraiva de Carvahok, holatsu hitz egin du: «Herriaren gehiengoak ez du botua kontzientzi eman».

Ikusten denez, irabazleak ados dira gertatu denaren

jatortasunaz; galtzaileek, oster, ba dirudi nahiago zutela ikusi dena ez ikusi. Soares prest omen dago «Herri-tar Fronte» bat eratzeko, komunistekin batuz. Baina ez dut uste, abagadune\* hontan horrelako elkartasuna posible denik. Alderdi Komunistak nahiago du, noski, Indar Harmatuen adiskidantza; eta, jakina denez, Indar Harmatuen programaren aurrean Alderdi Sozialista izan da solaskide\* zailena. Bestalde, Alderdi Komunistari ez zaio komeni, gaurko egoeratik «Herri-tar Fronte» baten barnean minoria ttipi bat izatera jaisterik.

### Nola interpreta une berria?

Soaresek gogoratu duenez, PSP eta PCPk 51 % diputatu berenak dituzte; eta beste alderdi ttipi batzurenkin fronte marxista zabal bat posible litzateke, Indar Harmatuek horrelakorik ontzat emango balute. Demokraziaren zenbakiekin jokatzuz, posible da fronte marxista bat sortzea (sozialistak marxistatzat ematen baldin baditugu behintzat). Hain zuzen, ikuspuntu hontantxe oinharritzen da, hauteskuendean ondorenei eman nahi zaien interpretapen bat.

Batzuren eritziz, bozketan hauetako irabazlea ezker marxista litzateke. Eskuin zaharra hiltzer\* legoke. Eta kontserbakorrek (erdi-eskuinekoek) PPD lukete aterpea; baina gutiengo,\* minoria, bezala geratuz. Baina ba da kontrako beste interpretapen bat ere: benetako irabazlea politik **neurritasuna** izan da (PCP eta ezker muturreko alderdiekin kontra), sozial demokrazia batetan finkatzen den politik neurritasuna. Ikuspegi hontatik, ondorio bidez, zera pentsa liteke: marxismo dogmatiko eta ortodoxoari bidea hersten zaiola.



Alvaro Cunhal (PCP)

Bistan da, bi interpretazio hauk erabat\* kontrakoak ditugula. Zer esan, bada, Portugalen etorkizunaz? Segur aski errealitate politikoa eta soziala ideologien eskema hauetan nekez mugatuko da. Marxismoak bideak irekiak izanen ditu; baina bere abiadan neurritasun bat beharko du, iraultza egiteko. Eta neurritasun honekin batera bidezka berriak asmatu beharko, ñabardura\* osagarriak\* bilatu eta denboraren ekinean aspergabe lan egin, eta agian\* gogorkeriarik gabe. Beharbada, kontserbakorrei arrazoina eman zaie nolabait, eta marxismo klasikoak galdu egin du. Aldez aurretik hauteskuendak arbuia\* dituzten marxist alderdiei ere, iraultza harmaturako arrazoina eman ote diete hauteskuendek? Hor dago gakoa: Portugalen harmak Indar Harmatuen (MFAkoen) eskutan daude, eta berauek ere iraultzailatzat jotzen dute beren burua.

Alderdien programa, amets, prediku, promesa eta ekintza guztiek, eta hauteskuendek ere, deus guti alda lezakete MFA delakoaren borondate boteretsuaren kontra. Geroak esan beza norena den egia, arrazoina, iraultza, indarra eta etorkizuna.

Joanes GOIA



## Elizaren etorkizunaz

Gaur hainbeste kezkatzen gaituen gai zorionekoa. Zer irtenbide ote du Elizak? Batzu\* oraintxe hasi berriak dira Kontzilioari begira. Beste batzuk, berriz, pasatuzat jotzen dute Batzarre famatu hura.\* Gaurko problematikak ez du zer ikusirik —diote— Kontzilioa posible egin zuen problematikarekin. Eta honek aurrera begiratzen duen bitartean, besteak atzera behatzen\* du, biak kezka berberak eraginik.

Duela zenbait aste, hain zuzen, Yves Congar, Frantziako teologo ospatsua, arazo hontaz mintzatu da Madrilén. Ezin uka, gai hontaz haren hitzek eduki dezaketén indarra, bera izan baitzen Kontzilioaren eragilerik handienetako bat. Haren berbaldiaren laburpen bat ematen dugu hemen.

«Elizaren etorkizuna —aitortu du hizkariak— munduaren etorkizunean presente egoten jakitean datza\*».

Kontzilioak eragindako aggiornamendua ez da nahikoa gaur egun. Ezin gaitzke atzera begira egon, orain artekoa luzatu nahirik. Aro\* berri baten atarian erabat\* murgildurik gaude. Pasatu da «Kultura Katolikoaren Aroa». Kultura modernoek jantzi dute orain txapela, eta ez dira preseski katolikoak. Geure Eliza, kultura moderno hauen barnean bizitzeko gai egin behar dugu. Eta hau ez da, erraz konpon daitekeen arazoa. Gaur, Kontzilioak ezagutu ez zituén problema berriak presentatzen zaizkigu. Oso kontutan eduki behar dugu problematika berria, ezer onik egin nahi badugu. Horra gazteriaren problema: bere balioaz ohartu da, eta ez dago konforme orain arte emandako erantzunekin. Horra, halaber,\* emakumearen problema: etxeko sukaldetik ateratzen ari den emakume horrek, zer erantzunkizun izango du Elizan? Bestalde, ez dakigu zer ondorio ekarriko digun ekumenismoak; eta berdín, zer emango digun Hirugarren Munduko, hau da, Afrika, Asia eta Hego Amerikako Elizaren sor-keta lanak.

Giro berri hau aurrean dugularik, ez zaigu inola ere erraz egiten Elizaren etorkizunaz mintzatzea. Zailtasun hau aitortuz, hiruzpalau puntutara mugatu du hizlariak bere berbaldia.

Elizaren instituzioen kritikari heldu dio lehenik. Gaur askok eta askok ez dituzte maite Elizaren instituzioak. Elizan parte hartzeko molde berriak eskatzen dituzte. Kristau elkarte txikiak sortzen asi dira edonon. Eliza, guk geuk egin behar dugula esaten da, eta ez, besterik gabe, inork emandakoa onhartu. Gero eta gehiago, tokian tokiko eliza bereziak sortuko dira, azken Sinodoan esan denez.

Fedea eta politikari buruz, orain arte bion artean egon den dualismoa gutituz joanen da. Eliza, gizartearen salbaziorako jarria da. Kristau salbazioak liberazioa darama berekin. Hala ere, ez dira nahasi behar salbazioa eta liberazioa, baina bereizi ere ez. Elizak bere egitekoen artean hartu behar du liberazioa.

Bere misiolarietan ere beste jokabide bat eskatzen zaio Elizari. Mendebaldeko\* kulturak ezarri dizkion moldeetatik libre, Herrien eta Herrialdeen Eliza izatera saiatu behar du. Eta ekumenismoa bultzatu, humilki eta eroapen\* handiz.

Elizaren ministergoari testigantza\* jator bat eskatuko zaio, eta ez hainbeste erabakirik. Ezer esan aurretik, orain arte ez bezala, Elizak ikasi eta informatu beharko du. Eta azken hitza esan ordez, norabide\* zabalak eta aski\* argiak eskaintzera joko du.

Etorkizun nahiko larria benetan, Elizari presentatzen zaiona. Etorkizun zaila. Hala ere, gaur egun Ebanjelioaren alde-tik Elizaren historiako unadarik\* ederrera bizi dugula aitortu du Congar-ek. Gaur egun ahoz aho dabiltzan asmo eta ideia asko eta asko Ebanjelioaren muinean daude. Horregatik fede gehiago ukan behar genuke munduaren etorkizunean. Eta fede hau bizitzen dugun neurrian preparatuko dugu Elizaren etorkizuna ere.

## Eliza Vietnamen

Oraindik orain, Saigoneko artzapezpiku Nguyen Van Binh jaunak, Hego Vietnamen gertatzen ari den herritarren ihes-kuntzaren kontra hitz egin du ageri batetan, eta apezpikuen ondoan beren herrietan geratzeko eskatu die eliztarrei. «Eliza edozein ideologia eta politikaren gaineratik dago. Erregimen politiko baten barnean bizi izan gara orain arte. Hemendik aurrera, Herriak beste bide batetatik jotzen badu, hartara moldatzera eta hartan bizitzera bermatuko\* gara», esan du artzapezpikuak.



Yves Congar teologoa

Bestalde, Caritas Internazionalak aitortu duenez, Estatu Batuen eraginez gertatzen ari den haurren herbesteratzea, Vietnamgo Herriaren eta Elizaren usteen kontra doa.

Vietnamgo Elizaren jarrera\* hau, hamar urte hauetan Vatikanok eraman duen politikaren ondorio garbia da. Eliza katolikoa beti saiatu da, komunistek eta katolikoek elkar har dezaten Vietnamgo Herriaren onerako.

Pignedoli kardinalak ireki zuen bidea 1966.ean, budistak eta katolikoak akordio batetara hel zitezén lortu zuenean.

1973.ean, Pierre Gheddo apez gazteak, Vietnamgo giroa hurbildik ezagutu ondoren, argi eta garbi aitortu zuen, Eliza ezin zitekeela itsuki antikomunismoaren bidetik joan, eta, bakea erdiesteko,\* katolikoek eta komunisten batasuna baitzepadakoa\* zela. Beraz, aukerabideren bat eskaini behar zitzaiokeela Van Thieu-ren erregimenari.

Garai bertsuan,\* hitz berdintsuz mintzatu ziren Vietnamgo apezpikuak, iraultzaileekin elkartu beharraren alde agertuz.

Oraindik orain, apirilaren 3an, Thieu-ren dimisioari buruz, Herriaren asmoak eta helburuak arrazoinetakoak zirela aitortu zuen Saigoneko artzapezpikuak.

Aniztasun\* politikoaren aldeko Elizaren jokabide honek ez du oihartzun\* handirik izan. Dударik gabe, Vietnamgo erregimen berria ez da demokratikoa izango. Eta ez daki inork, giza eta erlijio eskubideak errespetatuak izango ote diren. Hala ere, katolikoak, giro berriari ongietorria emanaz, ez dira beren herrietatik mugituko, vietnamiarren artean ba-kea eta adiskidegoa nagusi daitezén.

Joan Jose ITURRIOTZ



## ipar aldea



### Paris gutaz axolatzen\* hasi ote?

Bata bestearen ondotik, bi ministru jin\* zaizkigu Parisetik. Bata Poniatowski jauna, Estatuko poliziaz eta inguramenaren antolamenduaz arta\* hartzen duena. Bestea, Soisson jauna, Estatuko idazkaria,\* Unibertsitateen gorabeheretaz okupatzen dena.

Lehenak ibilaldi laburra egin zuen hemen gaindi.\* Goizeko bederatzietan airekoz etorri eta eguerdiko\* berriz airekoz joan! Esan behar dugu, hala ere, bere egonaldi laburñoaren oroikarri gisa,\* dirulaguntza zenbait hitzeman\* zituela, Angeluko\* itsas hegiko\* harresiarentzat, Biarritzeko urzikinen garbiolarentzat\* eta Baionako industrial eremuarentzat.\*

Bigarrenak ere, bere aldetik, erabaki bat hartu zuen, Baionako Herriko Etxean egin zuen bilkuran,\* gure eskualdearentzat garrantzia\* haundia izanen duena geroari buruz, batez ere bizibidearen mailan.

IUT delako teknologiako eskola goi mailako baten eraikitzea deliberatu zuen. Lur eremua Baiona-Angelubiarriz hiriek eman behar izanen dute. Eskolaren altxatzea eta gero korri eraztea Estatuaren gain.

Eskola hortan emanen den irakaskuntza, hastapeanean\* osoki lantegi mota guztietako gidaritzari eta salgingtzako teknikei buruz irekia izanen da.

Baionako bilkura hortan, ba zen jaun multzo bat hegoaldeko lau euskal hiriburuetarik jinik, eta haien artean nafarrak agertu ziren elakaririk\* pizkorrenak. Iruineko merkataldegiko\* lehendakariak gogotik ikusiko luke delako IUT hortan biologia aplikatuaren ikas sail bat. Donostiakoak, aldiz,\* elektronikako ikas sail bat. Orogen\* buru, bi sail berezi hauk,\* nahiz Baionako alkatea bera ere bigarren sailaren alde agertu zen, ez dira berehala muntatuko.

Dena den, heldu\* den urriko,\* lehen saila ireki beharra dute. Agian\* izanen bide du arrakasta\* onik. Eta ondorio onik ere guretzat, ondorio on hori hegoaldeetik ipa-

rraldera lantegi berrien ekar eraztea delarik. Gisa\* guztiz, ondorio hori urte pare baten buruan ikusiko dugu. (Gexan Lantziri)

### Bi berri on Baionarentzat

Duela zenbait aste, Baionako garan edo tren geltokian ofizialki bataiatua izan da tren motor berri bat: CC 40.107. Ehun ta bederatzita tonelada haztatzen\* eta hogeita bi metro luze ditu. 240 kilometro orenean\* egitera heltzen ahal da. Europako burdinbide guztietan ibiltzen ahal da, elektrik indarraren baliatzeko lau sistema bereziren jabe baita.

Baionako harmarriak iratxekirik\* emanak dizkiote bi saihsaldeen, pentsatuz, ibiliko den hirietan gaindi, jendea Baionaz oroiteraziko duela eta bakantza egunetan ipar euskal itsas hegi hontara ekar eraziko.

Tren motorraren izendatzeko ohitura hori ez da oraingoa. Egiten hasi ziren denborakoa da. Eta, nola lehenak Ingalaterran egin baitziren, ohitura edo usaia hori ingelesak dugu.

Frantziako Estatuan hogeigarren mende honen hastapenean bazterrera utzia izan zen. Eta duela hiru urte doi\* doi izan da berriz abiatua, Metz hirian.

Baina ez da ohitura hori, egun\* hemen aipatu nahi genuen gauzarik garrantziazkoena. Zeren,\* karia\* hortara, trenbideetako buruzagiak, Arramon jaunak, bi berri jakin erazi baitzituen, Baiona hiriarentzat inportantzia haundia dutenak. Eta hona zein.

Lehena hauxe dugu: heldu den udatik aitzina, «Étendard» deitu\* tren lasterra egun guztiez ibiliko da Parisetik Baionara eta Hendaiara, Orain arte udan eta Bazkoko bakantzetan baitzebilan bakarrik.

Uste dugunez, lehen klaseko trena dugu. Eta Akizetik\* Baionarako burdinbidea 1855.ean —beraz, duela 120 urte— egin zelarik, hogeita bost oren behar baldin baitzuten trenak Parisetik Baionara heltzeko, oraingo tresna berri honek bost ordu eta hiru ordulaurden aski\* ditu.

Bigarren berria ere ez da txarragoa. Eta hauxe da, hiruzpalau urte barne Baionako trengara osoki berritua izanen dela. Obralanak heldu den urtean hasiko omen dira. Beraz, hiri haundi batek behar duen tren geltoki berriaren jabe eginen zaigu luza gabe Ipar Euskal Herriko hiriburua. (Gexan Lantziri)



## bizkaia

### Atentatuak Bilbon

Maiatzaren 7 eta 8an, gauerdian aldean edo, atentatu sonatu batzuetan gertatu ziren Bilbon. Haietan IKER euskal liburu egile eta zabaltzaileari, HERRIAK liburudendari, Zubiri jaunaren modadendari eta CHEKIA izeneko portzelana eta bitxidendari, izugarritzko kalteak egin dizkiete, harrika eta tiroz erakustegiko kristalak hautsi ondoren.

Ibarra abokatu gazteari, gainera, ezezagun batzuk guez haren etxera joanik, izugarritzko jipioa\* eman zioten.

**ELAIS ALAI**

**YURRE**

DANTZATOKI GOXOA Igandez ta jai egunez: 6 tatik 10.ra  
Astegunez: 7. tatik 10 ra.

SOINU KOADROFONIKOA

---

KAFETEGI **AMA LUR** RESTAURANTA



Egitada horien egileak nortzu\* izan diren ez da jakin. Dena dela, IKERreko bulegoetan\* —atentatua bulegoetxe batetako 8. estaian\* izan baita— «Viva Cristo Rey» bat idatzi dute atentatzaileek.

IKER taldekoek, horrialde hauetatik, dei bat egin nahi liekete beren abonatu guztiei, atentatuan fitxa, bizileku eta eskari asko apurtu eta hondatu baitiete. Horregatik, mesedez, beren harpidea berriz bidaltzeko erregutzen diete guztiei, aldez aurretik eskerrak emanez.

## Bi polizia tiroz hilak

Maiatzaren 6an, Gernikan, goardia zibil bat tiroz hila izan zen. Biharamunean, Bilbon, polizia bat, tiroz halaber,\* erhan\* egin zuten ezezagun batzuk. Bidegabekeria lazgarri bi horien egileak, beraiek Baionan publikoki adierazi zuten, ETAkoak izan ziren. Noiz arte hau guztiau? Noraino helduko gara?

## Ondarroako «Kresala elkartean erantzuna P.Z. Legarreta jaunari

Gure eskutitz irekia ez duzula osorik irakurri iruditzen zaigu. Edo eta kolorezko betaurrekoekin irakurri duzula.

Erljioa baztertzea erabaki ote dugun galdetzen diguzu, ezta? Zure azken galdeak hori esan nahi duela dirudi, gure ustez behintzat.

Geure erabakia puntu bitan jartzen genuen. Eta bigarren puntuan hau esaten genuen —hain zuzen, zeure eskutitz horretan aipatu ere egiten ez duzuna): «Taldek arduradunek onhartu egiten dute gurasoen eritzi eta eskabidea. Halaber,\* gurasoen eskabide hori betetzen, arduradunek berek laguntzen dituzte haurrak» (ANAITASUNA, 290. zenb., 8. horrialdea).

Jokabide hau erlijioa baztertzea ote da? Honela jokatzuz, nork bere erlijioari buruz libreki duen jokabide pertsonala onhartzen eta zaintzen dugulakoan gaude.

Eta jokabide hau ez da, zuk esan erazten diguzun bezala, «geure Herriarentzat guk aurkitu dugun erantzunik jatorrena». Hau ere ez duzu ondo eta osorik irakurri (zer-gatik, lagun, miopia hori?), edo...

Guk hori baino neurtuago idatzi genuen: «**Une honetan** (oraingoan [azpimarra gurea da]), geure Herriarentzat...

Bai, P.Z. Legarreta jauna! **Une honetan**, «Kresala» elkarte honetan erlijioari buruz pentsakera asko daude. **Une honetan**, Haurren Egunitara joaten diren hainbat eta hainbat haurren gurasoek ere erlijio arazoa ez dute ber-

din ikusten eta ez dute hartan berdin jokutzen. **Une honetan**, Haurren Egunita antolatzen direnean, ez dugu inon ere aurkitu beste erlijio ekintzarik, Kristau Meza izan ezik. **Eta une honetan**, haur guztiak multzoan Meza horietara errotzen\* dira.

Une honetan zer erabaki dugun? Une honetan, Haurren Egunita aurkitzen dugun **inposizio hori** baztertzea eta hankaz gora botatzea. Inposizioek bai nortasuna eta bai herritasuna moztu dizkigutelako. Pertsona bakoitzaren eta «talde txikien» nortasun eta giza eskubideetan oinharritzen den Herri bila gabiltza. Eta Haurren Egunita ere bide horretan abiatzea nahi genuke... eta eskatzen dugu.

Eta, amaitzeko, «tabula rasa» eta horrelakoak gorde, arren, elizgizonen batzarreetarako. Edo eta elizgizonok, latina alde batera utzi duzuenen, herritar gizaixook hizkuntza horrekin muturjoka ibiltzera behartuko ote gaituzue? Geure amagandik jaso genuen geure hizkuntzan analfabetuak ez izateak ere nahiko lan ematen digu, guri behintzat. (Ondarroako «Kresala» elkarte)



## Banco de Bilbao-ren zuzendaritza

«Situación», Banco de Bilbao-ren aldizkariak, bere azken zenbakian, banku horren zuzendaritzaren berri ematen digu. Uste dugu interesgarria dela, ekonomiaren aldetik nortzuk\* agintzen diguten jakitea, eta, halaber,\* horietarik nortzu dauden zuzen eta agerian politikazko agintaritza gorenean. Horien izen-deiturek aski\* adierazten baitigute Euskal Herriko ekonomi hiri nagusiaren nondiknorakoa, eta ez bakarrik Bizkaian, bai eta beste euskal herrialde guztietan eta Estatuko lurralde askotan ere.

**Ohorezko lehendakaria**, Gervasio Collar Luis. **Lehendakaria**, José Angel Sánchez Asiarin. **Lehendakari ordea**, Manuel de Lezama-Legizamon Zuatzola. **Kontseilariak**, Juan María Agirre Atxutegi, Jaime Agirre Olabari, Ignacio Aitzola Sota (Iurreta-Ganboako markesa), Pedro Ampuero Gandarias, José Aresti Ortiz, Javier Artetxe Chalbaud, Pedro Artiatx Pérez, Juan Blanco Santos, Gabriel Txabarri Poveda (Trianoko markesa), José Manuel Delclaux Barrenetxea, Arturo Etxebarria Uribe, Miguel María Esparta Fz. de Larrinoa, Faustino García-Moncó Fernández (Merkatalgoko\* Ministru ohia\*), Fernando Gondra Lazurtegi, José Ignacio Gz. de Etxebarri Oz. de Urbina, Enrique Guzmán Martínez, Lorenzo Hurtado de Saratxo Arregi, Ramón Ikatza Zabalburu, Gabriel Laiseca Allende, Antonio Nabarrete Silva, José Orbegoza Gangoiti, Juan Ríos Carmona, Ceferino Urien Goirizelaia, Andrés Vilariño Alonso, Emilio Ibarra Txurruka, Ignacio Zubiria MacMahon. **Zuzendari nagusia**, Rafael Acosta España. (D. Amaitermin)

## Unibertsitateko irakasleak eta euskara

Geroago eta atzerago geratzen\* ari da, euskará\* bati hizkuntza kontsideratzen zeneko garaia.

## GALERIA DEL LIBRO

José Angel de Zaballa

Liburudenda  
Euskal liburuak



EUSKAL LIBURU AZOKA

EUSKARAZ EGITEN DA

Ercilla, 35 - Tel. 43 83 99 - B I L B O - 1 1



Lehen, goi mailako ikasketak egiten zituztèn euskaldunetz, ez zuten gehiago euskara erabiltzen; baztertu eta ukatu egiten zuten gehienek hein\* handi batetan. Euskararen egoera geroago eta makaltzenago ari zen. Makaltze horren kausa gisa\* askotakoa zen (eta da). Kausa horien arteko bat, lehen aipatu duguna zen; horrela, hein\* egiten baitzitzaien euskarari, teknikara, zientziara, ekonomiara, medikuntzara eta beste hainbat arlotara helzteko bidea.

Gaur egun, ba dirudi, jokabide lotsagarri hori gainditzeko bidean barna abiatzen hasiak garela. Frogatzat,\* hor dugu Lejoako\* Unibertsitateko irakasle ordezkoe\* atera berri duten txostena.\* Txosten horretan beren egoeraren berri ematen dute. Txosten bat ez dela beste munduko gauza esanen bide du batek baino gehiagok. Baina txosten horrek berezitasun aipagarri bat du: euskaraz eta gaztelaniaz eginik dagoela, halegia.\*

Entzuna dugunez, Katalunian aspaldi hasiak dira honelako egintzak obratzen; baina Euskal Herrion, nik dakidala behintzat, honako hauxe da lehena. Ez ailitz\* azkena! (J.R. Etxebarria)

## «Resurreccion Maria de Azkue»

### I. Literatur Lehiaketa

Bilboko Aurrezki Kutxa Hirikoak,\* bere gizarte eta kultur saila hedatu\* nahiz, «Resurreccion Maria de Azkue» izeneko I. Literatur Lehiaketarako dei egiten du. Urterokoa izango da, eta hona hemen

## «CINSA» argitaletxea

Avenida del Ejército, 18, 3, eskuin. Bilbo-14

### URRETXINDORRAK

Bergarako kantari talde famatuari egindako kaxetea. Kantu hauk agertzen dira: «Nere gurdia ren ardatza», «Aitorren hizkuntza zaharra», «Munduko bideak», «Anoushtka», «Ai amatxo», «Neska zaharrak», «Iguriako boluan», «Mendi puntatik», «Aurrezki», «Markesaren aiaba», «Maitasun bila erromes», «Nahi nuen kantatu», «Haurra sehaskan», «Haurraren jakintza», «Ohitura zaharrak piztu» eta «Bake ta maitasunaren kanta».

Prezioa: 390 pezeta

### ROBINSON CRUSOE

Daniel Defoe-ren elaberri famatua, Xabier Kintanak euskaratua, gaztetxoentzat oso egokia. Nagusiei ere gomentatzen diegu, euskara batuaren aditz formak oparo erabiltzen dituelako.

Prezioa: 150 pezeta

### HEIDI

Juana Spyri-k idatzitako elaberri famatua, eta Xabier Mendigurenek euskaratua. «Robinson Crusoe» elaberriaren sail berean argitaratu dugu, euskaldun gazteñoek irakurgai egokiak eduki ditzaten. Suitzako Alpe mendietan gertatzen den elaberri hau, Europako hizkuntza guztietara itzulia izan da, eta orain euskarara.

Prezioa: 175 pezeta

### Euskal Herriko dendetan salgai

#### Gure banatzaileak:

Iñaki Beobide. Ferrerías, 1. Donostia. Tel. 460725.  
 Librería Manterola. Manterola, 8. Donostia. Tel. 425072.  
 «Gordailu». Vergara, 21, 3. Donostia. Tel. 429779.  
 Distribuidora San Miguel. Prim, 41, 3. Bilbo. Tel. 236024.  
 «Iker». General Concha, 39, 8. Bilbo. Tel. 324006.  
 Distribuidora Juaristi. Zuazola, 3. Bilbo. Tel. 471356.

## OINHARRIAK

- Euskal kontazikunen «Resurreccion Maria de Azkue» Literatur Lehiaketa honek 125.000 (ehun ta hogeita bost mila) pezetatako saria izango du: sari zatiezina, eta saridun gabe ezin lot\* daitekeena.
- Lehiaketa hontara edozein kontakizun (elaberri\* labur, ipuin, ixtorio, azalketa\*) ager daiteke; baina hurrengo arauok bete beharko ditu:
  - Euskaraz idatzia izatea, egilea edonongoa izan arren.
  - Edozein euskalkitan idatziak izan daitezke. Epaimahaikoek lanaren balioa aztertuko dute, haren mamia eta erabilitako hizkera eta ulerterraztasuna haintzat harturik.
  - Lanak, berekiak\* eta argitaragabeak izatea.
  - Epaia emateke\* legokeen beste literatur sariketaren batera, izen berberaz edo bestez, bidalia ez izatea; horrela balitz, idazlea bertatik\* izango litzateke baztertua sariketa hontatik.
  - Gaia, bakoitzak gura duena.
  - Idazleak lan bat edo gehiago bidal dezake lehiaketara, bere izenaz edo izenordeaz sinaturik.\* Izenordearen ezagugarria azal txiki batetan gordeta bidal bedi.
  - Lehiaketa hontara lanen bat ekarriz gero, egileak ezin lezake ez bere lanik eska, ez eta sariketarik alde egin ere.
- Taxuari\* dagokionez, sariketako lanen baldintzak:
  - Makinaz idatziak edo makinaz berreginak,\* letrorritarte birekin eta horrialde batez soilik.
  - Lan bereki bakoitzeko hiru aldaki\* bidal bitez, liburu antzean josiak.
  - Horriek folio neurria izango dute, eta idazle-erroak 29 inguru izango dira horrialde bakoitzeko.
  - Egilearen izena edo izenordea (beronen argibidea azal txiki batetan) eta bizitokia edo helbidea\* (zerbait argitu behar balitz edo egileari zerbait adierazi).
- Lanek ez dute 100 (ehun) horrialde baino gutiago izango, esandako neurri eta taxuan.
1975. urte hontako uztailaren\* 31 baino lehen izango dira bidaliak.
- Lanak helbide hontara bidal bitez: Caja de Ahorros Municipal de Bilbao, Gran Vía, 23, Bilbao-1; eta, gainera, hauxe idatzirik: «Para el I Concurso Literario 'Resurrección María de Azkue' de Narraciones en Vasculencia».
- Literaturan, linguistikan eta erizkintzan\* gai direnak izango dira epailariak. Lehiaketa hontako epaia ematerakoan (urriaren 31n, Aurrezki Egunean) adieraziko da nortzu\* izan diren. Epaia honen aurka ezin daiteke inora jo.
- Lehiaketa hontako lanetarik, diruz saritua bat bakarra izango den arren, epaimahaikoek, egoki baderitzaite,\* deduzko\* aipamen bat edo gehiago egin dezakete, saririk gabe lotu\* diren kontakizun batzuren balioa agerian jartzeko.
- Lan sarituaren idazjabe asuna\* eta lan hori argitaratzeko eskubidea egilearen lotuko da osoro. Hala ere, saria eman eta handik urtebetegarrenean, Bilboko Aurrezki Kutxa Hirikoak eskubidea izango du, bere bezeroentzat\* lanaren argitaraldi arrunta\* egiteko.
- Sarituak izan ez diren lanak bihurtu egingo zaizkie egileei, eta hauek edo beraien ordezkariak eskuratu ahal izango dituzte.



11. Hartutako lanetaz ez da idatzizko harremanik izango.
12. Sariketa hontara datozenak, beste edozein lege berruti\* utzirik, Bilboko Haurtegien eskupe lotuko dira.

## Liburu berriak

ESTORNES LASA, Bernardo:  
**Mundua Euskal Erriaren gogoan.**  
 Auñamendi, Donostia, 1975.

Liburuaren lehen partean, euskaraz eta gaztelaniaz, Estornes Lasa jaunak Metal Garaiko bizieraz idazten du lehen 60 horrialdeetan, eta hurrengo 15 horrialdeetan hainbat ipuin zahar eskaintzen digu, basajaunak, jentilak eta horrelakoak agertzen direlarik. Liburuak bigarren parte bat du osorik gaztelaniaz, izenburu honekin: «Complemento. Sobre el pasado del euskera». Euskararen sortzeaz ari da, urteetan zehar eduki dituen aldaketak, inguruko hizkuntza nagusiekin ukan dituen harremanak eta azkenik gaur duen egoera azalduz. Liburu benetan interesgarria, batez ere euskara ikergaitzat hartzen dutenentzat. (Xabier Gereño)

SPYRI, Juana:  
**Heidi.**  
 Cinsa, Bilbo, 1975.

Geure bizitzaren bide erdia egin dugunok, hau da, gerra garaian gaztetxo izan ginenok, itzulminez\* gogoratzen ditugu orduko irakurgaiak: «Robinson Crusoe», «Heidi», «Morgan Kapitaina», etab. Elaberrri\* hauk Europako hizkuntza guztietara itzuliak izan dira, eta mundu osoan os-



pe handia ukan dute. Guk orduan erdaraz irakurri genuen; baina orain gure semeek euskaraz irakurtzeko aukera izango dute. «Robinson Crusoe» ihaz agertu zen, eta haren 2.000 aleak ia agorturik daude. Orain «Heidi» agertu da, eta antzeko arrakasta\* lortuko duela uste dugu, zeren\* Xabier Mendigurenek egin duen itzulpenak oso euskara erraza eta dotorea baitu. Liburuaren azala kolo-

rezkoa da, eta barruko irudiak Joseba Txarterina Gereño-nortasun handiz egin ditu. (Xabier Gereño)

ZULAIKA, Joseba:  
**Adanen poema amaigabea.**  
 Kriselu, Donostia, 1975.

Liburu honen lehen horrialdeak irakurtzen hasi eta berehala konturatu naiz poema bilduma\* honen maila garaiaz. Hor duzu, irakurle, euskal literaturaren obra gorenetariko bat. Liburuaren azken aldean Joxe Azurmendik Zulaikaren poema hauen azterketa bat egiten du, «Adanen poema amaigabea» Arestiren «Harri eta Herri» famatuarekin konparatuz. Azurmendik, bien garrantzia berdin antzekoa dela somatzen du. Hontan ados nago berekin.

Arestiren lanean gizon soziala agertzen bazaigu, Zulaikarenean gizon bakartia ikusten dugu, gizon primitiboa, lehen gizona, munduko gauza eta sentsazio guztiak berriak zaizkiona. Paradisutik jalgitzen\* denean, Adanek lehen aldiz sentitzen du askatasuna zer den. Ura, lurra, haizea ditu aurrean, bere bakartate hartan. Eta bakartate hori ez hausteko, Eba bera ere ez da poema hauetan agertzen.

**Aspaldi aspalditik lo edukitako  
 gogo primitibo hartan etzan zen Adan  
 bilutsik  
 eder-eder  
 izate osoaren betegarri.**

Geure zibilizazio honen zurrumilo\* madarikatu hontan murgildurik, gutariko nork ez du sentitu gaur desirakunde hori? Gizona numero soil bat izatera behartu nahi duen gizarteari egindako garrasi bat bezala da hau:

**Eta ni  
 Adan  
 hemen nago  
 bizitza jartzeko  
 bizitzak ihes nahi duen tokian...**

Adanek ingurura eta bere barrura begiratzen du, inguruko gauzak zer diren eta bera zer den jakin nahiz. Eta zer aurkitzen du? Fatalismorik ez. Adanek itxaropena du, burrukatzeko nahia du:

**Kasikan kontura gabe  
 Adanen gogoa promesa luze bat zen:  
 Eguzkia maiteko dut  
 eguzkia izango naiz  
 ilunak eguzki egingo ditut.**

\* Alegera gaitezen euskaldunok, gure literaturá bitxi balios batez aberastu delako. Irakur ezazu poema. Gero, Joxe Azurmendik esango dizu: «Irakurri duzu, irakurle. Liburuak bukatu da. Hau ez da liburuaren jarraipena. Jarraipena zu zara. Liburuak bukatu da, eta berriro hasten da». Eta horrela da, zeren\* Adan hori zu eta ni baikara. Edo izan behar genuke. (Xabier Gereño)

# MENCHACA

Estalkiak, Itzalkiak, Ikurriñak, Itxas tresnak, Igeritekoak, Uretako Jantziak, Alokatzeko Itzalkiak.

Zuzenbideak: Posta, 700-Urrutizkin, 245574-Telegrafoa, MENURI  
 Muelle de Uribarte, 15

BILBO-9



# Meteorologi harmak

Aspaldiko urteotan, hainbat eta hainbat horri bete izan dira aldizkarietan, oraintsu bukatu den Vietnamgo gerlari buruz. Heriotzeak milioika kontatu izan dira bertan. Lurrak, oihanak\* eta uztak\* errukigabeki deuseztaturik\* geratu izan dira gerlaren kausaz. Amerikarren botere izugarria ez da gai izan, herri baten kemen neurrigabea menperatzeko. Gerla hontan teknikarik aurreratuenak beren zerbitzutan eduki, harmarik beldurgarrienak erabili, eta dirutza ikaragarria eralgi\* arren, amerikarrek ezin galerazi ukan\* dute ipar vietnamiarren oldarra.\* Baina artikulu hontan ez gara gerla hori aztertzen hasiko, bertan moldatu, egokitu eta erabili den harma mota bat baizik: meteorologi harma.

Historikoki, meteorologiak garrantzi handia ukan du zenbait gerlatan. Adibide bezala, Errusiaren kasua aipatuko dugu. Azken berrehun urte hontan, erresuma\* hau bi aldiz salbatu da hango meteorologia bihurriari\* esker. Behin, Napoleonen garaian; eta beste behin, Hitleren denboretan. Kasu biotan, hobeto prestatuak zegoen eta indarrik gehien zuen harmadak,\* atzerantz egin behar izan zuen Erruslako negute gogorraren erruz. Errusiarrak, eguraldia lagun, garaile atera ziren.

Ez da harrizkoa, beraz, gizonak, eguraldiaren inportantzia oharturik, meteorologi faktoreak kontrolatzeko nahia agertzea. Horrela, amerikarrek euria egiten ikasi dute, eta bai harma bezala erabiltzen ere. Ikus dezagun, zada, zertan finkatzen den eta nola erabiltzen den harma modu hori.

## HODEIAK ETA EURIA

Euriaren kontrola lortzeko, hainbat ikerkuntza\* egin behar izan dira aurretik. Lehenbizi, euriaren zergatikoa eta nolakoa ezagutu behar ziren. Hauk\* ezagutu eta gero, euri bilakabidean\* noiz eta nola joka jakin behar zen. Eta, azkenik, teoria hau guztiok praktikara eraman behar ziren.

Hodeietan dagoen ura, oreka\* ezegonkoian\* dago. Elkarren aurka diharduten indar mota bik eragiten diote urari. Batetik, beherantz egiten duen grabitate indarra (hots,\* pisua) ari da obratzen. Eta bestetik, gorantz egiten duten indar aerodinamikoak. Aski\* da temperatur aldaketa ttipi bat nahiz presio aldaketa ttipi bat, surfusio egoeran dagoen ura kristal\* dadin, izotz\* kristalak kondentsa daitezzen, eta honela euria egiten has dadin, lehengo oreka egoera etenik.

## EURI ARTIFIZIALA

Euria artifizialki lortzeko, lagundu egin behar da orekaren etendura. Hortarako, kondentsapen gunak\* ereiten dira hodeiaren erdian. Gun horietan inguruko ura kondentsatzean, ur tantak sortzen dira, eta, grabitate indarra indar aerodinamikoak baino neurri handiagoz hazten delarik, ur tantok beherantz jausten\* hasten dira.

Aipaturiko kondentsapen gunak, hodeiaren barnean milioika barreiatzen\* diren hauts partikula mikroskopikoak dira. Gehien erabiltzen direnak, zilar\* iodurozkoak (Ag I delakozkoak) dira. Kimik konposatu honen bitartez  $10^{10} \sim 10^{14}$  partikula inguru sor daitezke gramoko. Zilar iodurozko partikulen ereintza hegazkinen bidez egiten da. Hegazkina hodei erdian sartzen da, eta bertatik barreiatu egiten du zilar ioduroa hodeian barna.

Hodeian suspentsioan dagoen ura, kristaldu egiten da zilar ioduroaren eraginez, hots, izotz bihurtzen da. Kristaltze hontan bero kantitate handia askatzen da: eta, bero askatze horren kausaz, hodeia zabaldu eta handitu

egiten da. Handitzean, hodei barneko presioa gutitu egiten da; eta horren kausaz, hodeiak, bere inguruan duen aire hezea\* erakartzen du. Honela, kate erreazio antzeko bat gertatzen da: hodeia geroago eta gehiago putzen eta handitzen da, eta berriro ere irensten du inguruko aire hezea. Inguruko haize heze hortan dagoen ura ere kondentsatu egiten da, eta kondentsapen honek indartu egiten du euria.

Modu hontan, hodeiak normalki botako lukeena baino askoz ere euri gehiago lortzen da. Hodei isolatu\* batek, esate baterako, hiruzpalau bider ur gehiago bota dezake. Eta elkar fusionatu diren hodei bik, hodei batek baino hogeita hamar aldiz euri gehiago.

Hodei guztiak ez dira egokiak, euri bilakabide hau aurrera eramateko. Esperientziak frogatu\* duenez, tropiko aldeko kumulu motako hodeiak dira egokienak. Beraz, euri ahala indartuz, eurialdi ikaragarriak —uholdeak— sorteraz daitezke.

Eurialdiok zein haundiak diren jakiteko, anekdota bixi bat aipatuko dugu. Oraindik euri artifizialaren kontrol osoa ez zutelarik, amerikarrek honelako eurialdi bat sorterazi zuten. Baina, gaizki kalkulaturik, bi ordutan, metro koadratuko, 180 litro jausi ziren haien kanpamentu batetara, etsaien gainera jausi beharrean.

## EURIA HARMA BHURTURIK

CIA delakoa izan zen, euria harma bezala erabili zuen lehena. 1963.eko agorrilean,\* budistek manifestazio handiak antolatu zituzten Vietnamgo Hue hirian. Manifestazioak deuseztatzeko, amerikar soldaduek bonba nigarre-ragileak jaurtiki zituzten, baina alferrik: budistek eutsi egiten zieten manifestazioei. CIAk, orduan, zilar iodurozko kristalen laguntzaz euria sortu zuen; eta euriaren eta bonben eragin bikoitz eta bateratuak zeharo desegin zuten manifestazioak.

Harez gero, amerikarrek sarritan erabili ukan dute harma hau Vietnamgo gerlanean. Asko ziren, euriaren bidez lortzen ziren militar helburuak. Batetik, uholdeak sortuz, kaminoak hondatu eta komunikabideak ebaki egiten ziren, eta, horrela ipar vietnamiarren abantzia\* galeratzen zen. Bestetik, traba handiak jartzen zitzaizkion etsaieren erradar eta antiaireko tresneriari. Gainera, batzutan, ekai\* azidoak gaineratuz, euri azidoa sorterazten zuten; eta honela hondatu eta alferrikaldu egiten zen lehen aipatu dugun tresneria.

## ONDORIOAK

Teknologiako beste hainbat aurreramendu bezala, euriaren kontrola ere, bakerako pentsatua izan zen lehenbizi (lurralde lehorretan euria sortzeko, etab.). Baina, bakerako barik,\* gerlarako erabilia izan da. Benetan lotsagarria!

Ba dira bestelako kezka ere, harma hauen erabiltzeari buruz. Hain zuzen, ekologi orekan ukan lezaketen eraginari buruz. Egia esan, oraino ez daude batera argi, epe laburretan eta epe luzetan harma horien kausaz gerta litezkeen klimatologi aldaketak. Eta hau, dudarik gabe, kezkarria da. Edonola\* ere, meteorologi kontrolaren efektuak hobeki aztertu behar lirateke; eta, horrez gain, estatuarteko hitzarmen\* bat egin behar litzateke, kontrol horren gerlarako erabiltzea galeraziz.

J. R. ETXEBARRIA

dezagun, daigun  
dezake, daike  
diote, deutsoe

lezakete, leikee  
zieten, eutseen  
zitzaizkion, jakozan



## KURDISTAN

### Herri bat ixildua da

530.000 km<sup>2</sup>. Hamar milioitik gora herritar. Bost Estatutan banaturik. Kurdiarrak ixiltasunean gelditu dira. Gure mundu «zibilizatu» honek, Herri bat nola garbitzen den ikusi du. Aldika, hil zorian botatzen zituèn garrasiak entzun ditugu. Berehala ixiltasuna. Martxoaren azkenaldian eta apirilaren lehen egunetan, Europa aldeko egunkari gehienek eman dizkigute Kurdistaneko dramaren albisteak. Orain ez dugu ezer entzuten. Eta gure mundu «zibilizatu» hau lasai geldituko da, eta laster ahantziko du Iraqueko gobernariak kurdiarren arnasa\* nola ito duten.

Kurdiar gehienak musulmanak dira; baina ez arabiarak. Eta arabiarrek ez dute kurdiarren herri burruka begi onez ikusten. Bost Estatutan banaturik dago Herri osoa. SESBen edo Sobietar Errepublikak Sozialisten Batasunean 150 bat mila bizi dira; Syrian milioi erdi bat; 5 bat milioi Turkian; 4 milioi inguru Iranen; eta 2 milioi Iraquen. Azken aldian beren askatasunaren aldeko burruka Iraquen eraman dute batez ere. Baina kurdiarren burruka\* etengabea izan da XX. mende hontan guztion. Kurdistan ez da inoiz Estatu berezia\* izan; baina XIX. mendeko azken urteetatik honantz bere nazionalismoa sendotuz eta indartuz etorri da. Baina behin eta berriro Estatuek ezarri dioten zapalkuntza gogorra izan da; eta ba dirudi, kurdiarren askatasunaren aldeko burruka luzararako ixildu dela.

Munduko lehen gudate nagusiaren ondoren, kurdiarrek autonomia on bat lortu zuten. Baina, handik hiru urtetera eta Ingalaterrak eta Turkiak egiten duten akordioaren ondoren, autonomia hura\* suntsituta\* gelditzen da, Turkian bereziki. Eta, hain zuzen ere, lehen eta bigarren gudate nagusien artean ezarriko dio Turkiak Kurdistani zapalkuntzarik makurrena, hango herritarrek milaka eta milaka garbituz. Eta Herri osoa herri bezala suntsitu nahiz, kurdiar hizkuntza, ohiturak eta kultura osoa kondentzen dituzte turkoek: kanpoan kurdieraz argitaraturiko libururik ere ez dago sartzerik Turkiara.

SESBeko kurdiarrek, Sobietar Batasunean beste herri txikiak duten autonomia bera dute. Iranen, izan dituzte beren tirabirak kurdiarrek Estatuarekin. Baina hemengo Gobernuak bigunagoa izan da haiekin eta laguntza handia ere eman die azken urteotan, Iraquen burruka gogorra zeramatarik. Syrian, berriz, kurdiera ez da ofiziala, baina gainerakoan beren hizkuntza erabiltzeko askatasuna dute kurdiarrek; hala ere, erne dago Syriako Gobernuak, kurdiar nazionalisten ekinaldiak itotzeko.

Azken urteotako burrukarik biziena Iraquen eraman dute kurdiarrek. Iraquen, petrolio iturrietan hirutarik bi Kurdistanen daude. Eta azken hamairu urteotan kurdiarrek jasan\* duten zapalkuntzaren arrazoin nagusia hortxe dago; baina kurdiarrek Iraquen daramaten burruka aurretikoa da. 1930.ean eta 1933.ean sortu zirèn matxinadetan nabarmendu zen, gaur arte kurdiarren buruzagi izan den Mustafa El Barzani. Munduko bigarren gudate nagusian berriz asaldatu\* dira kurdiarrak, El Barzani bera buru dutela; baina Ingalaterrako airekoek zapalduko dute kurdiarren ekinaldia. 1961.ean ekin zitzaizkion kurdiarrak benetako gudu harmatuari, eta urte batzuren buruan lurralde on bat kontrolatu ere egin zuten. Garai hontan Sobietar Batasunaren laguntza zuten kurdiarrek, bai diplomazia-

ren eta bai harmen a' etik ere. Eta 1966.ean, hain zuzen ere, kurdiarrek autonomi moduko bat lortu zuten Bagdadeko Gobernuagandik. Baina, lau hilabete geroago eta Sobietar Batasunaren laguntzarik gabe —honek Bagdadeko Gobernuarekin akordioa egin berri baitzuen—, berriz ekin zitzaizkion kurdiarrak burruka harmatuari.

Azkenik, 1970.ean konpondua zela zirudien kurdiarren eta Bagdaden arteko istiluak,\* Kurdistanek autonomia lortzen zuelarik Estatuaren barnean. Baina, polliki polliki eta urte gutitan, hutsean gelditzen da autonomia hura, Bagdadeko Gobernuak hautsi egin baitzuen akordioa, Kurdistaneko hiru probintzia —bata petrolio iturri handia— bereganatzen zituelarik. Horregatik, berriz ere, Mustafa El Barzani eta beronen Herria gudate latzari ekin zitzaizkion 1974.ean.

Iranen, Amerika zalea da Gobernuak; Iraquen, berriz, sozialista eta SESBen aldekoa. Horregatik, Iraneko Gobernuak laguntza handia eman die kurdiarrei, harmatan\* batez ere; eta horrela eutsi\* ahal izan diote kurdiarrek beren burrukarik, Iraqueko hegazkinen eta harmada\* organatuaren kontra. Baina aurtengo martxoaren lehen egunetan Iran eta Iraq akordio batetara heldu dira, beren muga arazoak konpontzeko. Eta hementxe etorri da kurdiarren zoritxarra, Iranen laguntzarik gabe eta beren mendietan inguratuta gelditzen zirelarik.



250.000 mila bat kurdiar ziren Iranera ihes eginak, honek apirilaren lehenean mugak hetsi\* dizkien arte. Iraquek amnistia eskaini die kurdiar horiei, berriz ere beren lurraldeetara itzultzekotan. Baina Iraquek kurdiarren arazoa behin eta betiko garbitu nahi du; eta horregatik kurdiarrak beldur dira beren etxera itzultzeko, Bagdadek ez baitu bere amnisti agintzaria\* bete eta bai Iranetik etorri diren kurdiar asko garbitu. Bitartean, beste aldeetik, Turkiak ere hetsi egin die muga, iheska zihoazen kurdiarrei. Turkia beldur da, Iraquetik datozkion kurdiarrek, bere lurraldean zapaldu eta itota dadukan kur-



diar herrialdea asaldatu ote duten. Horregatik, biderik «egokiena» eta errazena aukeratu du Ankarako Gobernuak. Honela, ez batera eta ez bestera, Irakeko Gobernuaren hatzaparretan gelditu da Kurdiar Herria; eta ez dago zalantzarik, Irakek bere neurri zapaltzaileak hartuko dituela, Kurdistanen arazoa betiko ehorzteko,\* eta hain berezia den Herria irensteko.

Estatu gehien axolagabekeriaren\* «babesean» eta beste Estatu batzuren adiskidego edo etsaigoen\* «sareetan» egin da Kurdistanen mende hontako historia larria, beronen bizkarretik egin baitute beren politika eta burutu\* baituzte beren akordioak. Baina Estatu haundien harmadek, gobernariak eta interesak orainokoa lortu duten bakarra zera da: Herri bat beren artean banatzea eta ixileraztea; baina ez Herri baten bizinahia eta indarra suntsitzea.

«Herri bat dagoenean, ez du inork nazionalismo oldea\* geldieraziko», esan du Mustafa El Barzani buruzagiak. Irakeko, Iraneko, Syriako, Turkiako eta Sobietar Batasuneko gobernamoldeak oso diferenteak dira: ezkerrekoak, erdikoak eta eskuinekoak. Baina, nola edo hala, denak bat etorri dira, Kurdiar Herriaren suntsipena «erabakitzekoan». Hala ere, Mustafa El Barzani ez du galdu bere esperantza; eta ez du uste, «bosten» artean ere kurdiarren askatasun arnasa itoko dutenik. **(Patxi Kortabarria)**

## TXILE

### Askatasun osoa Pinochet jeneralarentzat

Txileko Gobernuak 17 ministruek (14 militar eta 3 herrigizon) dimisioa presentatu diote Pinochet jeneralari. Eta hori, «askatasun osoa» honi emateko, ekonomiazko krisia konpon dezan.

Hankaz gora dabil ekonomia Txilen. Ihaz 37 % garestitu zen bizimodua, eta aurtengo lau hilabeteotan 61 %. Pinochet jaunak ekonomiazko estategia nahitaez aldatu behar du. Politikazko diktadura aski\* ez delarik, ekonomiazkoa ere ezarriko du oraingoan. Eta gero zer?

Kobrearekin Pinochet jaunak ez du zorte onik izan,



Pinochet jenerala (jezarria)

merketu egin baita ihaztik hona ere. Bestalde, ez du kanpoko laguntzarik. Pariseko Club delakoaren bilkura, esaterako, **sine die** gerorako utzi da. Eta arazo hori ez da bihar konponduko. Ez da konponduko, Txilen giza askatasunak eta eskubideak onhartzan ez diren arteino.

Herrigizonak sartuko omen ditu oraingoan Pinochet jeneralak Gobernuan. «Herrigizon apolitikoak» izango dira. «Normal» itxura eman nahi dio Txileri, antza.\* Zer ez

doa, bada, horren\* ondo Txilen, Pinochet jauna? **(Joanes Lekerika)**

## FRANTZIA

### Bide guztiak Lisboara

Bide guztiak Erromara eramaten omen dute. Frantzia, gaur behintzat, denek Lisboara eramaten dutela, hortaz ez dago dudarik. Hemen modan dago Portugal, Portugal berria.

Portugalen etorkizuna, batipat\* bilakabide\* iraultzaileak azkartu denetik, horrek interesatzen ditu gizarte aztertzaileak. Higidura\* hortan, bi arazo dira nagusi: militarren eginkizuna eta alderdi politikoen jokoa.

Batzuk, militarrek gero eta indar eta aginteremu\* gehiago hartzen ari direla azpimarkatzen dute. «Harmadak\* sakelean sartzen du iraultza» idazten du Michel Colmès kazetariak **Le Point** astekarian. **L'Humanité Rouge** ezker puntako aldizkariak dioenez, militar horiek sozial faxismoaren botak janzteko aldatu dituzte faxismoarenak. **Rouge** trotskisten aldizkaria ere ez da militarretaz gehiegi fidatzen; nahiago du langileen ekintza.

Eztabaidarik gehienak, alderdi politikoen zer egiten duten eta zer egin behar luketen eta nola jokatu behar luketen aztertzerakoan datoz. Ez dakit Portugalen hala denentz.\* Frantzia bai behintzat. (Sarritan, gainera, Portugal ahotan erabili arren, Frantziak mintzo dira.) Frantziako AK Portugaleko Alderdi Komunistarekin ados dago, honen kontrako kritika guztietan eskuindarren jokoa salatuz. Frantziako Alderdi Sozialista Portugaleko Alderdi Sozialistaren jokabidearen alde dago, eta demokraziaren garrantzia AS dela deklaratu du Mitterrandek.

Politikari asko joaten da Portugalera. Politik eta gizarte gaietaz diharduen asko ere han ikusi da: Althusser, esaterako.\* Baina, Bazkotan,\* batez ere ezkertiar pila handi bat joan zen hara Frantziatik. Portugaleko burkide\* «ezikasiei», hauteskunde\* garaian, Frantziako taldeek duten esperientziaren berri emateko. Han ikusi dira maoistak, etab. Espontaneismoa defendatu arren, politikan eta iraultzan deus\* ez baita inprobisatzen.

Lisboak Europako pizti arraroa dirudi, Europako Kuba. Publizitateak aldarrikatzen\* duen Portugaleko «haize sanoa», dirudienek, turistek ez baina (beldur dira hauk\*) politikariak arnastuko\* dute. Parisen jadanik\* «udaberri berorik» ez dagoenez gero, ea, bada, Lisboan beroago egiten duen! **(Joanes Lekerika)**

## ERRUSIA

### «Hogeigarren Mendea» Moskun

Argitaratu berria da Moskun aldizkari bat, ezkutuko agerkari bat, baimenik gabe aterata\* eta ixilean banatua. «Hogeigarren Mendea» du titulutzat aldizkari honek. Bizpahiru hilabetero argitaratuko da. Asmo gidaria ere ezaguna da, hots,\* «Sobietar Batasunean gizarte sozialistaren hazkundera,\* sozialismoaren eta demokraziaren elkar hartzeari esker». Idazleak zein marxistak zein ez marxistak izan daitezke: ez dago puntu horretan lege jakinik.

Lehen zenbakia, esan dugunez, argitaratu berria da: daktilografiaturiko hirurehun bat horri. Ba dago hor zer irakur: kontzentrazio zelaietatik itzulitako baten oroitzapenak, Soljenitsynek Sobietar Batasuneko agintariei egindako eskutitzaren aurkako erantzun bat, literatur iker-tzapen bat. Stalin eta stalinismoari buruzko estudio bat, etab.

Aldizkari honen zuzendaria Roy Medvedev da. Historilari marxista hau oso ezaguna da. Alderdi Komunistatik jaurtikia izan zen. Marxista segitzen du. Eta demokrazia-



rentzat leku uzten duen sozialismoaren alde burrukatzen da Sobietar Batasunean bertan. Berak bezala aldizkariak ere gauza bera nahi du: sozialismoaren eta demokrazia-  
ren ezkontze. (Joanes Lekerika).

## Mosku Mitterranden aurka

Mitterrandek, Frantziako ezkerren buruak, Moskun eta Brezneven alboan ikusten zuen bere burua. Eta horra, Moskuko agintariak atzeratu egin dute, Sobietar Batasunera Frantziako Alderdi Sozialistaren joatea. Ez esan, atzerakuntza hori apropos eta intentzio handiren batekin egin izan ez denik.

Jokabide diplomatiko guztien aurka, airekoa hartzeko bost egun falta zirelarik, eta laugarren aldiz, oraingoz ez joateko esan diote sobietarrek Mitterrandi. Esannahi handiko gertaera, zalantzarik gabe; Moskuk, diplomaziarren folklorea horren maitekiro zaintzen duen Moskuk, ez baitu holakorik debalde egiten. Laugarren aldiz gertatu da, gainera, hori. Lehenbizikoan, Mitterrandek berak atzeratu zuen, orduko Frantziako sobietar enbasadorearekin SESBeko juduei eta Txekoslovakiari buruz izan zuen eztabaida tarteko zela. 1972.ean zen hori. Geroztik, bitan —lehenik Pompidouren heriotzagatik eta gero Brezneven eritasunagatik— atzeratu dute bidaia hori.

Ia ia segur nago, irakurleak lerro hauk irakurtzen ditueneko, berritoren ere joateko egun bat jarria izango dela. Dena den, bostgarrena izanen da. Eta orduan Mitterranden bisitak ez du zentzu bera izango. Mosku biziki harriturik gelditu da, berri honek Frantziaren izan duen oihartzunaz. Ez dela hor inolako intentziorik ikusi behar, eta hori guztiori ulertzapen oker bat izan dela esan du ofizialki Moskuk. Arrazoina oso sinplea omen da, hots, bost urtetako plangintza prestatzen eta nazismoaren kontrako gerla ospatzeko bestakizunak antolatzen lanpetuegiak daudela memento hontan sobietar zuzendariak. Aitzakia horrek enganiatuko duen tontorik oraindik ez da jaito. Zer, bada? Orain konturatzen direa sobietarrak okupaturik daudela, orain, Mitterrand Moskura joateko bost egun falta direlarik? Aitzakiak aparte, Moskuren jokabide honek ba du zentzu politiko sakonik.

Politik aldetik, zer adierazten du Moskuren jokoak? Gai hauetan adituak ez datoz bat puntu hontan.

Frantziako Alderdi Komunistaren azpi jokoren bat ote dago hor? Batzuk hala uste dute. Chirac Frantziako lehen ministrua egon berria da Moskun. Eta han Frantziako Alderdi Komunistaren kontra mintzatu zen. Bidaia berean, Breznev biziki mintzatu zen Giscard Frantziako lehendakariaren alde. Bi arrazoin hauengatik, ba dakigu, Marchais jaunak, bere haserrea agerturik, gutun bat egin diola Breznev burkideari. Mitterranden hauzia ere aipatu izan balio, zer? Kasu hortan, egiazko komedia egiten ariko litzateke Alderdi Komunista, zeren eta, Moskuren erabakia jakin duenean, bera ez dela akort jakin erazi baitu, Mitterranden alde aterarik.

Beste batzuk, Mitterranden pertsona bera ezin duela begi onez Moskuk ikusi esango dute. Izan ere, Mitterrandek Moskuren aginte moduari kritikak maiz egin dizkio. Moskuren barneko eta kanpoko politika salatu du behin baino gehiagotan Mitterrandek. Ezagunak dira, oraindik berrikitan, Internazional Sozialistaren Bilkuran (otsailaren 22an), Frantziako AS-ren sekretari nagusiak egin zuen sobietarren kanpoko politikaren kritika gogorra.

Baina, dirudienez, Moskuk hori egiteko izan dituen arrazoinak askoz ere sakonagoak izan dira. Moskuk ez du sekula, Europar ezkerreko agintea har dezan gogo handiegirik izan. Mitterrandek berak, Internazional Sozialistaren Bilkuran esan zuenez, «Estatu Batuak bezala, Sobietar Batasuna ere Europar **statu quo** politikoaren aldekoa da. Gobernu kontserbakorrak sozialistak baino nahiago ditu beti». Frantziako kasuan, aginte gaullistarekin eta honen jarraitzailearekin ikaragarri ongi konpondu da

beti. Horrela, bada, Mitterrand baliogabeztatuz, ez ote du Moskuk Giscarden alde borondate oneko jestu bat egin nahi izan? Ez dezagun ahantz, hauteskondeen bezperan, Pariseko sobietar enbasadoreak Giscardi egin ziola ikustaldia eta ez Mitterrandi, horrekin lehena bigarrena baino maiteago zuela adieraziz.

Moskuk ez du oraingoz nahi, inork nazioarteko ekilibrio hauzitan edo kilikolo jar dezan. Bestalde, europar segurtasunaren konferentzia sonatu hura lortu arte, ez dago trankil Moskuk. Eta hori erdiesteko, gobernu burgesekin harremanak hersten hersten ari dira sobietarrek.

Ba da beste arrazoin bat ere. Niretzat esannahitsuen. Moskuk ez du gura sozialismoaren esperientzia berrik Europar. Pragako udaberria datorkio gogora. Europar sozialismoak eta komunismoak, bat egirik, bide berri bat irekiko balute, horrek agian udaberri bat ekarriko luke Pragan eta Budapesten eta Pankowen... Ezaguna da, Italiako «Hautsi-mautsi» Historikoak, Frantziako



François Mitterrand

ko «Programa Bateratuak», Espainiako «Aliantza eta Hitzarmenak» ez diotela Moskuri inongo graziaz eginen. Bide berri bat litzateke hori, dudarik gabe, Europar Sozialismo izenez bataiatua izango eta beraz Moskutik distantziaturik biziko litzatekeena.

Giscarden Frantzia nahiago du Moskuk Mitterrandena baino, Europa burgesa maiteago Europa ezkertiarra baino. (Joan Mari Torrealdai)

---

HOR, HAN, HEMEN

---

## Berri laburrak

- Frantziako alderdi sozialista irrati emangailu bat beretzat prestatzen ari da, frantses Estatuaren barrutik irratsaioak eman ahal izateko. Gobernuaren arauerako irrati eta telebistaren monopolioak hedatzen dituen berriei aurpegi ematea du helburu. Haseran, Paris eremuari lotuko omen zaio.

- **Russel Tribunalak** bere bigarren epaia eman du argitara. Lelio Basso buru duela, eta García Márquez, Bosch, Cortázar, Girardi, Rigaux, Kastler eta hauen gisako beste zenbait gizon nabari hauzimahaiko direla, Latin Amerikari buruzko ageri bat sinatu dute Bruselan. Brasil, Txile, Uruguay, Bolivia, Guatemala, Haiti, Dominikar Errepublika eta Argentinan agintariak buruturiko giza eskubideen zapaketak eta indarkeriak salatzen dituzte, bai eta, Estatu Batuak ere egeora horien suemale direlako, Nixon, Ford eta Kissingeri erruak bereziki leporatuz.



# AKEITA ALA KAFEA?

Hitz madarikaturik baldin badago, euskaraz behintzat, horietako bat **kafe** hitza dateke. Nork ez daki Euskal Herri, edo jakin uste du behintzat, euskaraz kafeari **akeita** esaten —esan behar— zaiola? Gutti dira, ordea, hitz horien historia dakitenak, halabaina.\*

Irakasle eskandinaviar batek, kuriositatez, euskaldun bati ea euskaraz **kafeak** zer izen zuen galdetu omen zion behin; eta, gure herkideak «akeita» erantzutean, «orduak euskara dateke\* kafeari **kafe** izena ematen ez dion Europako hizkuntza bakarra» erantzun omen zion irakasle hark, erabat\* harriturik.

Eta arrazoia ez zuen falta. Hona hemen esenpluak: espainolez, portugesez eta frantsesez **café**, katalanez **cafè**, italieraz **caffè**, ingelesez **coffee**, alemanez **Kaffee**, errusieraz **kofye**, bretoierraz **kafe**, hungarieraz **kávè**, eslovakeraz **kava**, georgieraz **k'ava**, turkieraz **kahve** eta arabieraz **qahwa** (=kava). Dakusagunez,\* bariante ttiki batzu\* alde batera utzirik, begi bistan dago hizkuntza guztiok hitz berbera darabilatela. Zergatik hau, ordea?

Ba dira ekoizpen edo produktu batzu, sortzen, biltzen edo moldatzen direneko tokiaren izena daramatenak, esate baterako **cognac** eta **champagne** deritzen edariak, Frantziako Cognac eta Champagne izeneko lurraldeetan sorturikoak. Espainian ere, holakoxeak dira **jerez** izena daramaten ardoak. Izen guztiok sorterriko marka batzu dira, eta horregatik toki guztietan izen horrexekin ezagutuak dira. Cognac-eko lurraldekoa ez denak, legez ezin har dezake cognac izena, **brandy** baizik.


Hauz gainera, noski, ba daude beste izen batzu, toki bakarrekoak direla edo leku konkretu batetan jatorria dutelako, antzeko hitz internazionalizat dabiltzanak: **paella** (Valencia), **whiskia** (Eskozia), **pizza** (Italia), **vodka** (Errusia), Euskal Herriko **txakolina** (eta ez **chacolí** ez **txakolí** inozo\* horik\*!).

Ederki! Eta kafeaz zer? Nondik dator hitz hori? **Kafea**, egunotan zoritxarrez hain modan dagoen Etiopiatik dator. Bertan Kaffa izeneko lurralde bat dago, sasi antzera kafea berez hazten zaiona. Ardiak, haren fruitua jatean, oso bizkor zebiltzala ikustean, fraide batzu **Coffea arabica** zientzi izena duen landarearen fruituak biltzen eta dastatzen\* hasi omen ziren; eta, dirudienez, hortixek zabaldu zen edari horren usadioa.

Arabieraz **qahura** aditzak «garaitu» edo «nagusitu» esan nahi du; eta azterlari batzuk kafearen etimologia hortxe zegokeela uste dute, edariaren pizgarritasuna kontuan harturik. Kaffa izena, gainera, **kafetik** datorrela diote, eta herrialde horrexen izenetik, halaber,\* europar hizkuntzetako f-dun barianteak.

Erdi Haroan arabiarrek kafearen merkatalgoan\* ibili ziren; baina mendebaldeko\* Europara berandu xamar ailegatu zen produktu hori. Frantziara, dakigunez, XVIII. mendean heldu zen kafearen usadioa; eta 1654. urtean —Axular jadanik\* hamar urte hila zelarik— lehenbiziko kafetxea irekitzen zen Marseillan. Edari hau, urrundik ekarria zela eta, oso garestia zen hasieran, eta aberatsek ez bestek dasta zezaketen.

Datu guztietatik, irakurleak jadanik ulertua duke\* ez dela posible jatorriz bertokoa ez den eta hain denbora modernotan etorririko produktu horrek euskal izen jator bat izatea. Bai, noski; baina **akeita** izena zer da, orduan? Hara! Herri xehearen artean kafea edatea gizonezkoen bizio eksklusiboa zen —gure gazte denboran tabakoa erretzea zen bezalaxe—, eta oso gaizki ikusten zen emakumezkoek hura edatea. Andreek, baina, behialako\* sagar galerazia legez,\* kafea gustatu eta gizonezkoek jakin gabe edan ahal izateko, Nafarroa Behereko herritxo batzutan **aketta** (eta ez **akeita!**) ezizena ematen zioten; eta aitzakia horrekin beren senarrek susmatu gabe ezkutu\* edaten omen zuten. Batzuk diotenetik, gainera, **aketta** mendiko belar baten izena omen zen, tripako mietarako, kamamillaren\* antzera edo, erabilia.



Dirudienez, euskal puristaren batek, hitz hori entzun bezain agudo,\* **aketta**-tik, erraxago esateko, **akeita** egin eta Euskal Herri osotik aldarrikatu\* zuen, harri filosofala aurkitu bailuen,\* hitzaren txantxetako zentzuaz konturatu barik.\* Eta hargatik, hortik dabilta oraino morroi asko, Mediterraneo berraurkiturik, **kafea** diogunoi **akeita** moduko hitz «jatorra» erakutsi guran.

Norbaitek esan dezake —eta dio— behin herriak ikasiz gero aski\* dela, beste gabe, **akeita** euskal hitz-tzat hartzeko. Holakoak, lehenik eta behin, «antierdara» inozo baten izenean, herriari enganio bat sartzea onhartzendu; eta aitzakia horrekin, bestalde, **kafe** euskal hitz jator eta nazioartekoa erabat baztertu nahi digu, **kafesne** hitz paregabearen lekuan, beharbada, akeitesne (?) pitxi eta iratxo\* bat ezarri nahirik.

Hi heu, irakurle, nahiago du(n)ana aukeratzeko libre haiz; baina neronek, **kafea** nahi dudanean, **kafea** eskatuko di(n)at beti, Brasilgoa ahal bada, eta ez Nafarroa Behereko edo Matxinbentako **akeita** edo **akeita** ondoko belar zikinik.

Xabier KINTANA

dezake, **daike**  
digu, **deusku**  
zaio, **jako**

zezaketen, **eikeen**  
zion, **eutson**  
zioten, **eutsoen**



## Ale honetan izartto batekin agertzen diren berbak

ABAGADUNE, coyuntura.  
 ABANTZU, avance. (Ikus Pierre Lhanderen hiztegia.)  
 ADIZKERA, flexión verbal.  
 AGIAN, probablemente, seguramente.  
 AGINTEREMU, terreno de mando.  
 AGINTZARI, promesa.  
 AGORRI, abuztu.  
 AGUDO, laster.  
 AIHERKUNDE, aversión.  
 AILITZ, ojalá fuese. (Ikus Lafitteren «Grammaire Basque», 382. horrialdea.)  
 AISE, erraz.  
 AKIZE, Frantziako Dax.  
 ALDAKI, copia.  
 ALDARRIKATU, proclamado, vociferado.  
 ALDARRIKATZE, proclamar.  
 ALDIZ, berriz, ordea, ostera.  
 ANGELU, Lapurdiko Anglet.  
 ANIZTASUN, askotasun, pluralismo.  
 ANTZ, irudi.  
 ARABERA, arauera, según, conforme.  
 ARAUERA, arabera, según, conforme.  
 ARBUIATU, despreciado.  
 ARNASA, hats, aliento, haleine.  
 ARNASTU, arnasa (hatsa) eman.  
 ARO, época, tiempo. (HARO, ruido, bruit.)  
 ARRAKASTA, éxito, succès.  
 ARRUNT, común, ordinario, popular.  
 ARTA, ardura, axola.  
 ARTAKIDEGO (arta, ardura + kidego), cogestión. (KUDEANTZA, gestión. AUTOKUDEANTZA, autogestión.)  
 ASALDATU, alborotado, alarmado, amotinado, rebelado.  
 ASKI, nahiko.  
 ATERAIA, ateratua. (Ikus Lafitteren «Grammaire Basque», 224. horrialdea.)  
 ATERARIK, ateraz. (Ikus «Axularren Hiztegia» eta Lafitteren «Grammaire Basque», 224. horrialdea.)  
 AUSART, valiente, intrépido.  
 AXOLAGABEKERIA, ardurabagekeria.  
 AXOLATZE, arduratze.  
 AZALKETA, relato.

DATEKE, da nonbait.  
 DATZA, yace, está. (Etzan aditzaren forma.)  
 DEA (da + a), ahal da?  
 DEDU, ohore.  
 DEITU, deitutako, deiturikako, deituriko.  
 DENENTZ, dentz, denez, den ala ez.  
 DEUS, ezer.  
 DEUSEZTATU, destruido, aniquilado.  
 DIREA (dira + a), ahal dira?  
 DITUENKO, ditueneko, para cuando los haya.  
 DOI, juxtu.  
 DUKE, du nonbait.

EDONOLA, nolanahi.  
 EGUERDIKO, eguerdirako.  
 EGUN, gaur.  
 EHORZTE, enterrar.  
 EKAI, materia.  
 ELABERRI, novela, roman.  
 ELAKARI, hablador.  
 EMANGAILU, aparato emisor.  
 EMATEKE, eman gabe.  
 ERABAT, gutliz, osoki.  
 ERALGI, gastatu.  
 ERDIESTE, lortze.  
 EREMU, terreno, territorio.  
 ERHAN, matado, tué.  
 ERITASUN, gaixotasun.  
 ERIZKINTZA, crítica.  
 EROAPEN, pazientzia.  
 EROATE, eramate.  
 ERRESUMA, erreinu.  
 ESATERAKO, esate baterako, por ejemplo.  
 ESTAIA, pliso, étage.  
 ETSAIGO, enemistad.  
 EUSKARÁ, euskerea, el euskera. (Azen-tuak artikulua adierazten du.)  
 EUSTE, apoyar, sostener.  
 EUTSI, apoyado, mantenido, sostenido.  
 EZEGONKOI, inestable.  
 EZKUTU (1), lugar oculto, escondrijo.  
 EZKUTU (2), ezkutatu, oculto.

FROGA, prueba, demostración.  
 FROGATU, probado, demostrado.

GAINDI, zehar.  
 GALTZER, galzorian, ia galdua.  
 GARBIOIA, instalación depuradora.  
 GARRANTZIA, inportantzia. (Iparalde-koentzat azken bokala organikoa da.)  
 GEHIENGO, mayoría.  
 GERATZE, gelditze.  
 GISA (1), mudu, era.  
 GISA (2), bezala, legez.  
 GUN, hun, núcleo.  
 GUTIENGO, minoría.  
 GUTUN, eskutitz.

HALABAINA, sin embargo, cependant.  
 HALABER, así mismo, también. Ene uttez, arrazoin du Altubek, baita ere (bai eta ere) gaitzesten duenean. (Ikus haren «Erderismos», 195-206 horrialdeak.)  
 HALEGIA (hala + egia), a saber, es decir, esto es. (ALEGIA, ficción, simulación.)  
 HARMADA, ejército.  
 HARMATAN, en armas. (HARMETAN, en las armas.)  
 HASTAPEN, haste, hasera, comienzo.  
 HAU, honeek. (Hauak aktibo, hauk pasibo.)  
 HAUTESKUNDE, elección por votación.  
 HAUTSI-MAUTSI, arreglo, componenda, compromiso. (ENGAIAMENDU, compromiso, engagement.)  
 HAZKUNDE, desarrollo, développement.  
 HAZTATZE, pisatze.  
 HEDATU, zabaldu.  
 HEDATZE, zabalitze.  
 HEGI, ertz.  
 HEIN, medida, grado, proporción.  
 HELBIDE, dirección, adresse. (ZUZENBIDE, justicia, derecho.)  
 HELDU, próximo.  
 HERRA, odio.  
 HERSTE, apretar, estrechar.  
 HETSI, hitxi, cerrado, fermé. (Baionako ZABAL aldirak hitz hau aukeratu du euskara baturako.)  
 HEZE, húmedo.  
 HEZKUNTZA, hezkunde, educación.

HIGIDURA, mugimendu.  
 HILTZER, a punto de morir, casi muerto.  
 HIRIKO, municipal.  
 HITZARMEN, convenio, pacto.  
 HITZEMAN, prometatu.  
 HORIK, hoik, horreek. (Horiek aktibo, horik pasibo.)  
 HORREN, hoin, tan.  
 HOTS, a saber, es decir, esto es.  
 HURA, ha.

IDAZJABETASUN, propiedad intelectual.  
 IDAZKARI, sekretari.  
 IKERKUNTZA, ikertzen, investigación.  
 INOZO, bobo, cándido, tonto.  
 IRAGAITZAKO, transitorio. (Ikus «Axularren Hiztegia».)  
 IRATXEKI, atxeki erazi, pegado, soldado, adhére, soudé. (IRAZEKI, izeki erazi, encendido, allumé.) Ikus «Axularren Hiztegia».  
 IRATXO, duende, petit fantôme.  
 ISOLATU, aislado.  
 ISTILU, conflicto.  
 ITZULMIN, nostalgia.  
 IZOTZ, hielo, glace.

JADANIK, ya.  
 JALGITZE, ateratze, irtete, urtete.  
 JARRERA, actitud, postura, posición.  
 JASAN, soportado, sufrido.  
 JAUSTE, erortze.  
 JIN, etorri.  
 JIPOI, astinaldi, somanta, tunda.  
 JOSKERA, sintaxis.

KAMAMILA, manzanilla.  
 KARIA, motivo.  
 KRISTAL, cristalizar. (KRISTALDU, cristalizado.)

LARUNBAT, zapatu.  
 LEGEZ, bezala.  
 LEJOA, Lejona, Bilboko hauzotegia.  
 LILURAMEN, encanto, hechizo, fascinación.  
 LOT, quedar, rester. (LOTU, quedado, resté.)  
 LUZAGARRI, continuación, apéndice.

MAIZ, sarri.  
 MENDEBALDE (mendebal + alde), ocidente, Oeste.  
 MENTS, déficit.  
 MENTURAZALE, aventurero.  
 MENTURAZKO, aventurado, arriesgado.

MERKATALDEGI, cámara de comercio.  
 MERKATALGO, comercio.  
 NABARI, público.  
 NORABIDE, orientación.  
 NORTZU, quiénes. (NOR, quién.)  
 NORTZUK, quiénes. (Nortzuk aktibo, nortzu pasibo.)

NABARDURA, matiz, nuance.

OHI, ex-.  
 OIHAN, baso.  
 OIHARTZUN, eco.  
 OLDAR, empuje.  
 OLDE, movimiento, corriente, impetu.  
 ORDEZKO, auxiliar, suplente, no numerario.  
 OREKA, equilibrio.  
 OREN, ordu.  
 ORO, gutzi.  
 OSAGARRI, complementario.  
 OSOTZE, completar, componer. (OSATZE, bizkaitarrentzat, curar da.)  
 OTSAIL, febrero.

PROMETATZE, prometer. (Ikus «Axularren Hiztegia».)  
 SEKRETARI, idazkari. (Ikus «Axularren Hiztegia».)  
 SEB, Sobietar Errepubliká Sozialisten Batasuna.  
 SINATU, firmado.  
 SOLASKIDE, interlocutor.  
 SUNTSITU, destruido, desaparecido.

TAXU, traza, porte, presentación.  
 TESTIGANTZA, testimonio, témoignage.  
 TXOSTEN, escrito (generalmente corto).

UKAN, izan. (Ukan aktibo, izan pasibo.)  
 UNADA (une + ada), periodo.  
 URRIKO, urrirako.  
 UZTA, cosecha, récolte.  
 UZTAIL, julio.

XEDE, límite.

ZAGITA, saeta, flecha.  
 ZAHAR, envejecer. (ZAHARTU, envejecido.)  
 ZEREN (ETA), ze, pues.  
 ZERGA, impuesto, contribución.  
 ZILAR, zidar, plata, argent.  
 ZOZKETA, sorteo.  
 ZURRUMILO, zurrumbilo, torbellino, tourbillon.

## ADITZ INFINITIBOA

### Axularrengan

Ez nazazula **dei** neure egunen **erdian**. **Utz** nazazu zahartzera, umotzera, urdintzera eta azken adinera heltzera (127: 258-16).

**Konpli** ezazu, bada, zuk ere zeure hitza eta promesa, **zahar\*** zintezeneko eman zenduena (130: 266-9).

Bigarren erremedioa, juramentu egiteko usantzaren uzteko, da erraita, juramentuaren orde, juramentuaren lekuan, «bai segur», «ez segur», «hala da», «ez da hala», «egia erraiten derautzut», «**sinets** nazazu», «ez nazazula gehiagotara **behar\*** (180: 357-9).

**Haserre** zaitzete, eta ez dagizuela bekaturik. **Haserre** bai, ordea neurritz, pazientziaren xedea\* eta marra iragan gabe; faltari bai, baina faltaren jabeari herrarik\* eta aiherkunderik\* eduki gabe (186: 367-18).



# Bilinguismoa zalantzan

Ezaguna dugu espezializazioaren funtzio ideologikoa. Espezializazioak, mundu objektiboaren batasuna mila puskatan zatituz, errealitatearen nolakotasuna aldatzeko beharrezkoa den pentsaera orokorra galerazten du. Gehiago oraindik, Ivan Illich-ek maiz salatu zuen monopolio profesional baten bidez, espezializazioak lan zatiketa eta sistemaren razionaltasun faltua mantentzen ditu. Espezializazio honen ondorioak gainditzeko, zientzi maila gutxietan ikusmira orokor baten premian gaude, sozial zientzietan bereziki.

Soziolinguistika espezializazio konkretu baten muga hestuak desagiteko jaiotzen. Zientzia desberdin askoren azterpideak onhartuz, oso sintesi interesgarri bat osatu du. Azken urte hauetan makina bat problema konprenitzeko giltzak eskaini dizkigu: adibidez, hizkuntzetako kontaktuaren problema.

Zoritxarrez, soziohizkuntzalariek sorterazitako kontzeptuak mixtifikazio ugariaren iturria izan dira. Baieztapen honekin ez dut ortodoxiarik defendatu nahi, manipulazio ideologikoa bat seinatu baizik. Har dezagun, esaterako, «diglosia» delakoaren kontzeptua. Diglosia, dakizuenez, lurralde berean hizkuntza biren bizikidetasuna da, bata bestearen menpeko delarik. Diglosia modan dago gaur egun. Euskal Herrian, Rafael Lluís Ninyoles jaunaren obra baliotsu baten bidez ezagutu genuen («Idioma y poder social». Ed. Tecnos. Madrid. 1972.). Gero Aratzen eta neronen artikulua etorri ziren («Anaitasuna», 253, 257 eta 261. zenb.). Luis Haranburu-Altunak («Ikastolak 1973», **Aurtengo zenbait berri**, Ed. Lur. Donostia. 1974.) guk esandakoari zenbait oztupo ezarri zion, baina azkenez gure ikuspuntua onhartu bide du («Las ikastolas». Triunfo, 655. zenb.). Egun, askok hitz egiten du diglosiari buruz. Hala ere, sozial kontaktu bati erreferentziarik egiten ez bazaio, kontzeptuaren etorkizko balore gutxia desagertzen da.

Apirilaren 24etik 26a arte, Hizkuntzbitasuna eta Irakaskuntzari buruzko II. Mintegia ospatu zen Palma de Mallorcan, Barcelonako Unibertsitate Zentraleko ICEK antolatutako. Bilkura hortan diglosiaz mintzatu zen, baina ez ikuspegi soziolinguistikoa batetik, kasu gutxitan izan ezik. Presentatu ziren lan gehienak psikologismo susmogarri batez kutsaturik zeuden. Hizkuntzbitasuna problematika indibidual bat bezala agertzen zen, haren sozial baldintza guztiak ahanztuz.

Planteamendu honen asmo asimilatzailea argiro nabaritu zen, Erromako Unibertsitateko Renzo Titone irakaslearen mintzaldian. Titone jaunak, aski ezaguna den hastapen psikologista eta mistiko bat oinharritzat hartuz (Ikus Philip Lersch-en «La Estructura de la Personalidad»), hizkuntzbitasunaren laudorioak kantatu zituzkun. Geroxeago jakin genuenez, Titoneren taldeko ikerzapenen ondorioak Alto Adigion hasi dira praktikan ipintzen, hango nazional arazoa konpondu nahiz. Alto Adigio, jakina denez, etnikoki germaniar den Italiako eskualde bat dugu.

Asmo asimilatzaile honen beste frogak bat: Miquel Clot jaunak, Andorrako «Casa de la Vall» delakoak egindako txosten bat irakurri zuen. Andorratarren hizkuntzarako jokabide ofiziala, haseratik, diglosiaren menpean mugitu da. Ez dute diglosia horren kontra burrukarik egin,

zeren, andorratarrek berek argi eta garbi diotenez, burruka hortan ez baitute interesik. Ontzat hartu dute, Espainia eta Frantziarekiko lotura ekonomikoek ezartzen dieten egoera. Clot jaunak zioenez, katalan hizkuntzaren irakaskuntza eta eski kirolaren irakaskuntza maila bere berean daude..., «andorrazio» kultural baten programa.

Aitzitik, eta diglosiazko egoeraren benetako gainditze bati behatzen badiogu, Galiziako ordezkariak eta zenbait katalanek azaldu zituzten ideiak, xit interesgarriak iruditzen zitzaizkigun.

Vigoko Valentín Arias jaunak galegozko irakaskuntzaren egoerari buruz laburpen bat egin zion. Ez zuen soziolinguistikaren hiztegia erabili, baina hizkuntzaren problematikari egiazko hurbiltasun soziologikoa bat egin zion.

Lehendabizi, Galiziako herri nekazariaren autogorrotu linguistikoa aipatu zuen. Gorroto edo higuin hau, burges galegoen errealismo ezaren eta herri urguilu faltaren ondorio bat besterik ez da. Eta ez da gauza berria. Ene ustez, euskaldunok galegoegandik ikastekorik asko dugu zentzu honetan. 1971.ean idazle talde batek egindako liburuxka batetan («Plan pedagógico galego». Ed. Galaxia. Vigo. 1971) irakur dezakeguz:

«Azken mende hauetan, galego herriak ez du galegoz hitz egitea hautatu. Beste aukerarik ez zuelako mintzatu da galegoz, hots, gaztelaniaz hitz egiten ez zekiela. Hona hemen nola elkartu diren galegoa eta pobretasuna».

Geroago, Arias jaunak oso bereizkuntza garrantzitsu bat egin zuen. «Desgalegizazioa», Galiziaren bilakabide diglosikoa, inkontziente xamarra da. Aitzitik, «galegizazioa», galego hizkuntzaren normalizaziozko bilakabidea, kontziente dugu. Beraz, ezin daitezke biak maila berean konparatuak izan. Historiaren zentzuari so eginik, normalizaziozko bilakabide oro, «élite» batzuk sortzen badute ere, populuaren ekintzari loturik dago, eta beronen kontzientzia sendotzen den neurrian indartzen da hura ere.

Katalanen aldetik, aipagarriak dira Rosa-Sensat taldeko ordezkariak. Barcelonako Unibertsitate Zentraleko Jordi Vives soziologoak Katalunian egiten diren estudio soziolinguistikoei buruz txosten bat irakurri eta gero, Lluís López del Castillo jauna, irakaskuntz mailan gertatzen diren, hizkuntza normalizatuen eta sozial hizkeren arteko harremanez mintzatu zen. Euskal Herriko andre «agurgarri» batek ez zituen López del Castillo jaunaren argudio ulergarriak konprenitu, eta euskara batuaren kontra euskalkien defentsa egiten hasi zen. López del Castillok oroiterazi zionez, duela hirurogei urte egin zen Katalunian batasun linguistikoa; eta batasunaren kontra euskalkiak defendatzea, nahitaez jarrera erreazkionario bat da.

Laburtuz: Mintegia, diglosiaren alde eta kontrako jarrera batzuren nahasketa bat izan da. Zorigaitzez, ez zegoen tesi desberdin guztiak eztabaidatzeko astirik. Bestela, hizkuntzbitasunaz mintzatzea eta hizkuntza zapalduak zinez defendatzea gauza bera ez direla argiturik galdutuko zatekeen.

Ganix JUARISTI